

## Kultura

Gaur, despedidako kontzertua eskainiko du Ghetto taldeak, lehenengo kontzertua eman zuen Elorrioko Ateneoan > 11



## Bateginezen agurra, 22 urteren ondoren

Bateginez GKEak bere ibilbidea amaitutzat ematea erabaki du, Guatemalako proiektuetan zebiltzanengan konfiantza galdu ondoren. Atzo egin zuten bukaerako ekitaldia, Durangon > 10

Lehior Elorriaga

## Gorka Fraile presoak minbizia dauka, baina ez dute Euskal Herrira ekartzea onartu

Gorka Fraile preso politiko durangarrak mingaineko minbizia dauka, eta martitzenean egin zioten ebakuntza, Badajozeko ospitalean. Familiak azaldu duenez, eboluzioa ondo doala uste dute medikuek. Poliziek emandako tratua "ankerra" izan dela salatzen dute senideek, eta hori presoaren lasaitasuna apurtu guran egin dutela uste dute. Fraile Euskal Herrira ekartzeko eskaera egin zuten martxoan, baina astelehen honetan bertan ezezkoa jaso zuten Espetxe Zaintzarako Epaitegitik. > 4



**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
946 824 550 • [alkimax@alkimax.net](mailto:alkimax@alkimax.net)  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



### Durangaldea > 2

Maiatzaren 14aren ondoren, bihar eraturko dira udalbatza berriak

### Durango > 3

Enpresen arteko 'networking' proiektua sortu dute Durangon

### Durangaldea > 2

Manu Chao abeslari ezagunak Río de Oro egitasmoa babestu du

### Elorrio > 6

Ekainaren 20an, Egun Morean parte hartzeko deia egin dute

## **Herririk herri**

**Hauteskundeak pasa ostean, bihar osatuko dira udalak**

**DURANGALDEA M.O.**  
Maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeak pasa ziren, eta, orduko emaitzak kontuan hartuta, udalak osatzea tokatzen da orain. Hain zuzen ere, bihar hartuko dituzte aulkiak zinegotziek, eta herri bakoitzean zein alkate egongo den ere erabakiko da. Badirudi ez dela sorpresa handirik egongo, eta hauteskundeak irabazi zituzten hautagaiek gobernatuko dutela. Elorrión, Herria-



IGOR  
AGIRRE

ren Eskubidearen botoak edo abstentzioak erabakiko du nor izango den alkate: Idoia Buruaga (EH Bildu) edo Joseba Mujika (EAJ). Mallabian, aldaketa segurua da EAJren alde.

Durangon, EH Bildu alkatetzara aurkeztuko da Dani Maeztugaz. Zazpi zinegotzi lortu ditu koalizioak, baina EAJk bat gehiago. Beraz, Aitziber Irigoras hautagai duten jeltzaleek abantaila edukiko dute. Maeztuk adierazi du beste alderdi batzuekin berba egiten dabilzala, baina ez du akordioarik



DANI  
MAEZTU

aurreratu. “4.300 botoren babesa izan dugu. Ez gara zerrendarik bozkatuena izan, baina uste dugu lehenengo egunetik Durango aldatzeko esfortzua egin behar dugula”. Maeztuk dio “politika ulertu eta egiteko moduak” aldatu gura dituztela.

## **Río de Oro egitasmoa babestu du Manu Chao abeslari ezagunak**

Río de Oro kanpaina hasi du bere lana kaleratzeko

**DURANGALDEA M.O.**  
“Batuetan, keinu batek uste duguna baino askoz gehiago balio dezake”. Horrela hasten da saharaiaren aldeko Río de Oro elkarteak sare sozialetan zabalduko kanpainaren oharra. Manu Chao abeslari ezagunak parte hartu du bertan, adibidez, eta ekimenari indarra eman dio. Keinua baliogarria, beraz. Saharaiaren aldeko kontzientziazioa egin, eta Río de Ororen lana zabaltzeko helburua du kanpainak. Herritarrei hurrengo eskatu diete: kartel batean lelo bat sortzea *Río de...* oinarri hartuta, eta horregaz argazki bat ateratzea. Argazki hori Río de Ororen Facebookeko orrialdera igotzea ere eskatu dute. Manu Chaok, *Río de... esperanza* leloagaz babestu du egitasmoa.

Río de Oro elkarteko Mikel del Arcok azaldu du Bilbon emandako hitzaldi batean eza-gutu zutela Manu Chao. Ber-

baldiaren ostean harengana hurreratu, eta euren proiektua aurkeztu zioten. “Edozertan laguntzeko prest zegoela esan zigun”, dio Mikel del Arcok. Kanpainan laguntzeko eskaera egin, eta parte hartzera animatu da kantari ezaguna.

**Hamaika ume datoz udan**  
Aniztasun funtzionala duten hamaika ume saharai Aljeriako kanpalekueetatik Izurtzara ekarriko ditu udan Río de Oro elkarteak. Aurreko urte bietan ere ekarri dituzte autismoa, buruko paralisia edo gorreria dituzten umeak. Elkarteak eskaintako aukera barik, ume horiek ezin izaten dute errefuxiatuen kanpalekueetatik irten, Oporrak Bakean programagaz askok egiten duten antzera.

Umeak zaintzeko, 100dik gora boluntariok eman dute izena, eta hainbat Espainiako Estatu-tik etorritakoak izango dira.



Manu Chao, kanpaina babesteko egin duen argazkian.



Hainbat lagun dabilza Río de Ororen kanpainan parte hartzen.



Ekitaldira bertaratu zirenak, topa egiten.

## **Durangaldearen nortasuna aldarrikatu du Gerediagak**

50. urtemuga ospatu du Gerediagak, Astolan

**DURANGALDEA M.O.**  
Domekan, 50. urtemugako jaialdia egin zuen Astolan Gerediaga Elkarteak, eta Durangaldearen nortasuna aldarrikatu zuen, Nerea Mujika lehendakariaren ahotik. Durangaldearen nortasuna zaindu, ikertu, eta zabaltzeko helburuz jaio zen elkarteak, eta, Gerediagaren ustez, eskualde sentimendua ahuldu egin da. Baina sentimendu edo kontzientzia hori indartzeko la-

nean jarraituko dutela adierazi zuen Mujikak.

Mezu horretaz gain, elkar-tearen sortzaileei, juntakideei eta bazkideei eskerrak eman zizkien Mujikak. Gainera, orain arte juntakide izandako lagun guztiak omendu zituzten. Durangoko Orfeoak eta L'Atelier dantza eskolak parte hartu zuten ekitaldian. Ekitaldi horren aurretik berbaldea eskaini zuten, eta ostetik herri bazkaria.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org


2015eko ekainaren 12a,  
13. urtea - 593. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia,  
Ibaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugalde Begoña,  
Martxel Zubia Arrinda,  
Eneko Azurmendi Barrena.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

**Laguntzaileak:**



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



# Enpresen arteko 'networking' proiektua aurkeztu dute

BNI Kooperera Bizkaia taldean 32 enpresa dabilta; 50era hetzea dute helburu



BNIren aurkezpenean, 06:45ean elkartu ziren hainbat enpresari Durangoko Gran Hotelean.

**DURANGO** Jone Guenetxea Balioa, negozioa eta lana bultzatzea helburu duen BNI Kooperera Bizkaia proiektua aurkeztu

zuten martitzenean, Durangon. Inguruko 200 enpresari baino gehiagok interes handiagaz jarraitu zuten *networking* proiektuaren aurkezpena. Enpresa eraikitzaileak, aholkularitzak, arkitektoak, arotzak... Hainbat arlotako profesionalak elkartu

ziren Gran Hotelean jarritako hitzorduan. Aitziber Irigoras Durangoko jarduneko alkatea eta Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko jarduneko presidentea ere ekitaldian izan ziren.

Momentuz, inguruko 32 enpresak parte hartzen dute Torrealday aholkularitzak martxan jarritako proiektuan. Baina helburua 50 enpresa baino gehiagok parte hartzea da. Jose Antonio Cano BNIko zuzendariak azaldu zuenez, Torrealdayren bezeroek negozioa sortzen laguntzea eskatzen zieten. "Bizi-rauten lagunduko zieten norbait behar zuten. BNIren filosofia ezagutu genuen, eta interesgarria zela iruditu zitzaigun". Gizpuzkoan hiru talde sortu dituzte: Donostian, Irunen eta Beasainen. Bizkaian, berriz, Bilbon eta Algortan talde bi dabilta. Durangokoa EAeko sei-garren taldea da, eta helburua haztea da.

BNI erreferentzien marketinga da. Izan ere, enpresen %98 erreferentzien menpe daude. Enpresen %3k bakarrik du es-

trategiaren bat beste erreferentzia batzuk sortzeko. Programa honek erreferentzia kualifikatuak lortzen laguntzen du. Beraz, harreman profesionalak dituzten bezeroek osatutako klub bat da. *Ematen dutenek jasoko dute* da programa honen goiburua.

BNIren funtzionamendua baserriarren lanagaz alderatu zuen Canok: "Lehenengo lurra prestatzen dugu, erein egiten dugu, zaindu egiten dugu, eta, ondoren, fruitua jasotzen dugu". BNI taldeetan komisiok debeatuta daude. Zor bat sortzen da, baina zor hori ez da ekonomikoa. Aktibitate profesional bakoitzeko kide bat dago, beraz, ez dute konpetentziarik sortzen.

**Nazioartean arrakastatsua** BNI munduko *networking* erakunde arrakastatsua dela azpimarratu du Canok. 60 herrialdeetan martxan dago, eta 7.100 talde baino gehiago batzen dira astero-astero. 180.000 enpresarik parte hartzen dute mundu osoan banatutako taldeetan.

# Plateruena doan erabili ahalko dute Durangaldeko elkarte eta sortzaileek

Platerueneko arduradunek espazioa erabiltzeko proposamena aurkeztu dute

**DURANGO** M.O. Hemendik aurrera, Plateruena doan erabili ahalko dute Durangaldeko elkarte eta sortzaileek. Kulturgune herritarreko arduradunek espazioa erabiltzeko

proposamena aurkeztu zieten eguaztenean hainbat eragileri eta herritarri. Plateruenearen eredu eraberritzearen ondorioz, kultur sustapeneko, komunikazioko eta programazioko

lantalde parte-hartzaileak sortu zituzten, eta azken talde horren ideia izan da espazioa erabiltzeko proposamena egitea.

## Fabrika

Kamerinoa eta ganbara batzar gela zein sorkuntza gela gisa egokituko dituzte. Anfiteatroa, aurrerantzean Fabrika deituko dena, proiektio eta batzarretarako erabili ahalko da, besteak beste. Bertan soinu ekipoa, argiak eta bideoak proiektatzeko tresneria eta pantaila daude.

Areto nagusia ere eskatu ahalko dute elkarteek. Ekitaldiak teknikari bakarraren lana eskatzen badu, gastua Plateruena hartuko du bere gain. Hor-tik aurrerako gastuak elkarteak ordaindu beharko ditu.



Batzarra anfiteatroan egin zuten, aurrerantzean Fabrika deituko den aretoan.

# Intxaurre Eguna maskarada bategaz ospatuko dute

Maskaradaren ostean, herri bazkarian batuko dira

**DURANGO** M.O.

Intxaurre kultur elkarteak jaialdia iragarri du biharko, eta maskarada izango da eguneko ekitaldi aipagarrienetakoa. Gaztedi taldeak eskainiko du maskarada, 11:30etik aurrera, eta Ezkurdin, Madalena, Plateruenearen parean, Andra Marian eta Balbino Garitaonandia plazan ikusi ahalko da. Ekitaldi hori, gainera, Durangoko Euskal Astearen barrukoa da. Izan ere, Intxaurrek ere parte hartu du aurtengo egitarauaren lan-keetan.

Maskaradaren ostean, herri bazkarian batuko dira, eta, arratsaldean, Urruñako (Lapurdi) Polekeleke txarangagaz poteoa egingo dute. Gauean, kontzertuen txanda helduko

da: Ganorabakuek, Baghdad eta La Basu izango dira musika taldeak.

## Domekan, txakolina

Biharko maskarada ez da Euskal Astearen harira asteburuan egingo den ekitaldi bakarra. Adibidez, domekarako Txakolin Eguna antolatu dute Alde Zaharreko tabernariak. 12:00etatik 15:00etara egongo da dastaketarako aukera.

Gauean, Ganorabakuek, Baghdad eta La Basu taldeek kontzertuak eskainiko dituzte

**CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**  
Doako irakaskuntza ofiziala

**MATRIKULA**

**IRAKASKUNTZA ARAUTUA**

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

Beste jardura batzuk:  
kultur ekitaldiak, irteerak...

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**

- Atzerritarrentzako gaztelania.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika
- Ingelesa, frantsesa, euskara (hasiera-maila)

**MATRIKULA ZAITEZ**  
946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA:**  
Ekainaren 15etik 30era eta irailaren 1etik 15era

# Frailek minbizia dauka, baina ez dute Euskal Herrira ekarriko

Gorka Fraileri ebakuntza egin diote, eta medikuek diote eboluzioa ondo doala

**DURANGO** Markel Onaindia Gorka Fraile preso politiko durangarrak minbizia dauka, eta martitzenean ebakuntza egin zioten Badajozeko ospitalean. Baina, gaixorik egon arren, momentuz ez dute Euskal Herrira ekarriko. Izan ere, astelehenean bertan heldu zen Espetxe Zaintzarako Epaitegiaren ezezkoa, senideek martxoan egindako eskaerari erantzunez.

2014ko abenduan, mingai- nean koskor bat zeukala sentitu zuen Frailek. Martxoan biopsia egin, eta apirilean baieztatu zen minbizia zela. Ebakuntza ondo irten zen, eta eguaztenean itzartu zen preso, esperotako 48 orduak baino lehen. Ainhoa Sergio lehengusinak atzo eguerdian emandako datuen arabera, medikuek diote eboluzioa ondo doala. Atzo bertan solairura igo

zuten. Momentuz ez diete esan aurrera begira zer tratamendu jarraitu beharko duen gaixotasunari aurre egiteko.

## “Tratu ankerra”

Frailek poliziak alboan eduki ditu une oro, eta horien partetik jasotako “tratu ankerra” salatu du familiak. Eguaztenean emandako prentsurrekoan, Nerea Makuso koinatak kontatu zuen ebakuntzara arte Fraile esku- burdinak jarrita eduki zutela, eta poliziek musika ipini eta za-

Momentuz ez diete esan aurrera begira zer tratamendu jarraitu beharko duen

ratak egiten zituztela. Horrela, gaixoaren lasaitasuna apurtu gura zutela uste dute senideek. Egoeraren zailtasuna ulertzeko, preso ebakuntza bertan behera uzteko asmoz egon zela azaldu dute. Gainera, senideek bisita egiteko oztopoak jasan zituztela salatu zuen Makusok. Bestalde, senideen ustez, medikuen tratua egokia izan arren, ebakuntzaren ostean, erizain bat poliziek batera adarra jotzen ibili zela salatu zuen Gorka Frailek.

## “Giza eskubideen urraketa”

Martxoko biopsia esku- burdinak jarrita egin zioten, eta horrek azkartu zuen Euskal Herrira ekartzeko eskaera. Jaiki Hadi mediku elkarteak Esti Gorostia- garen arabera, Fraile ekarri eta Osakidetzan tratatzea eskubide bat da. Ane Ituño abokatuaren

ustez, hori litzateke “tratu duina bermatzeko modu bakarra”.

Presoen eskubideen alde lan egiten duen Sare mugimenduak polizien “mendekua” kritikatu, eta Frailek jasotako tratua “giza eskubideen urraketa larritzat” jo du. Etxeraten ustez, “sakabanaketa politikak sufrimendua handitzen du edozein egoeraren aurrean”, eta, horregatik, sakabanaketaz amaitzeko beharri- zana helarazi die herritarrei.

Gorka Frailek hamazazpi urte daramatza kartzelan, ETA-

ko kide izateagatik. Senideek, bere alabak barne, 1.600 kilo- metro egin behar dituzte bera ikusteko. Amak, ostera, ezin du bidaiatu, belauneko arazoengatik. Kartzelan beste zortzi urtez egon beharko duela uste dute senideek, Sergioren esanetan.

## Gaur, manifestazioa

Sakabanaketa politikaren kontra eta Frailek jasandako tratua salatzen, manifestaziora deitu du gaurko Etxeratek, 20:00etan, Andra Maritik hasita.



Eguazteneko prentsurrekoan, Plateruenean, jende ugari batu zen. Goretti Serrano

# Idigorasek “merezki duen esker ona” erakustea eskatu diote udalari



Jon Idigorasen senitartekoak, joan zen barikuko prentsurrekoan.

**ZORNOTZA** J. Derteano Joan zen barikuan, Jon Idigoras anai-arreba eta lobek prentsurrekoa eskaini zuten Zornotzan. Politikari zornotzarrek “gorputz eta arima, bizitza osoa zintzotasun osoz Euskal Herriaren askatasunaren alde” eman zuela adierazi zuten senitartekoek. Bere ibilbide sindikalista eta politikotik harago pertsona “oso-oso bat” izan zela gogoratu zuten: “Senide, adiskide, eta lagun maitagarria eta maitatua, era guztietako jendeak estimatzen zuena, herrikoa, hurbila, zornotzarron eta euskal herritar guztion bihotzean beti go- goan gorderik iraungo duena”.

Horregatik guztiagatik, Jon Idigorasi “merezki duen esker ona” adieraztea eskatu diote

udalari. Esate baterako, adierazi dutenez, Zornotzako kale bati bere izena jartzea izan daiteke horretarako modu bat, eta denen arteko adostasuna bilatzeko ahalegina aldarrikatu dute.

## Ibilbide politikoa

Jon Idigoras LAB sindikatua- ren eta Herri Batasunaren sortzaileetako bat izan zen. HBko Mahai Nazionalako kide izan zen 1978tik 1995era, EAEko lege- biltzarkidea, 1980tik 1984ra, eta Espainiako Kongresuko dipu- tatua, Bizkaitik, 1986an, 1989an eta 1993an. Gainera, Gernikako Juntetxean *Eusko gudariak* abestia kantatuz Juan Carlos orduko Espainiako erregearen hitzaldia eten zutenetako bat izan zen.

# 943 sinadura ginekologia zerbitzua hobetzearen alde

## ZORNOTZA A.U.

Zornotzako anbulatorioko gi- nekologia zerbitzuan hobekuntzak eskatzeko, herritar talde batek Aste Santu inguruan abiatutako sinadura bilketak 943 atxikimendu jaso ditu. Sinadura horiek guztiak osasun zentroan aurkeztu zituzten, joan zen barikuan, eta orain erantzunaren zain daude.

Hasieran, 500 sinaduratan jarri zuten jomuga, eta kopuru hori ia bikoiztu egin dute. Osasun Sailari hobekuntza zehatz bi eskatzen dizkiote. Batetik, mugikortasun arazoak dituzten emakumeei egokitutako esku- ohe berri bat. Izan ere, ekimenaren sustatzaileen esanetan, edadeko emakumeei edo haurdun daudenei kosta egiten zaie esku-ohetik igotzea eta jaistea. Eskaera horri lehentasuna ematen diote.

Bestetik, ekografo –ume- tokia ikusteko tresna– berri bat eskatu dute; orain dagoena zaharkituta dagoela eta ez dituela diagnostiko zehatzak ahalbidetzen adierazi dute.

Anbulatorio berria 2016ko udan irekitzea aurreikusita dago. Orain anbulatorioan dauden azpiegiturak eramango dituzte berrira. Beraz, zain egon beharrean, hobekuntzak orain egin, eta, ondoren, tokiz aldatu daitezkeela uste dute.

# Imanol González irabazle jaietako kartel lehiaketan

Jai giroa herriko toki esanguratsuekin bateratu du

## ZORNOTZA J.D.


Imanol González Estepa zorno- tzarraren kartelak iragarriko ditu aurten Karmengo jaiak. 16 urte ditu, eta Urritxe institutu- ko ikaslea da.

Iaz legez, Zornotzako 14-35 urte arteko gazteei bideratuta egon da lehiaketa. Guztira, 21 kartel aurkeztu dituzte; epai- mahaiak horietatik lau bereizi ditu, eta Jai Batzordeak “ia aho batez” hartu du azken erabakia, Andoni Agirrebeitia kultura zi- negotziaren esanetan.

Jai giroa herriko hainbat elementu esanguratsuekin –Na- gelen eskultura, Urgozo iturria

eta buruhandiak, adibidez– bateratu ditu kartelak. Hodei Zambrano epaimahaikidearen ustez, “igartzen da zornotzar batek egin duela. Azken finean, bertakoek ulertzen eta irudi- katzen dituzte jaiak ondoen. Elementu guztien arteko oreka lortu du. Kartela begiratu, eta berehala ikusten dut erakutsi gura duen mundua”.

Gonzalezek onartu du lehia- keta irabaztea “sorpresa” izan dela: “Ez nuen espero. Iazko kartelek maila handia zuten, eta probatzeagatik parte har- tu nuen”. Hainbat arratsalde behar izan ditu kartela osatzeko.



Imanol González Estepa, kartel irabazleagaz. Goretti Serrano

# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PEDAGOGIA

**UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

## PODOLOGIA

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA  
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA  
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

## OPTIKA

**keinu** optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

RPS: 162/13

## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hartz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

 **Profesional onenak zure zerbitzura!**

# Betaurreko moreak jantzita, Egun Morerako deia egin dute feministek

Kanpaina parte-hartzailea egin dute hilaren 20ko Egun Morea iragartzeko

**ELORRIO** Markel Onaindia  
Deialdiak eta kanpainak egiteko moduak asko aldatu dira azken urteetan, eta feministen partetik zabaldu den azkenak hori frogatzen du. Ikuspegi feminista sinbolizatzen duten betaurreko moreak jantzita, kanpaina alai eta parte-hartzailea landu dute, ekainaren 20an, Elorrion izan-

Durangaldean, feminismoaren arloan dabilzan hainbat lagunek sustatu dute Egun Morea

go den Egun Morea iragartzeko. Betaurrekoak herririk herri eta eskurik esku zabaldu dituzte, eta 100 lagun baino gehiagok babestu dute kanpaina. Gero, guztien argazkiak sare sozialetan eskegi dituzte.

**Historian sakontzen**  
Durangaldean, feminismoan dabilzan hainbat lagunek sustatu dute hurrengo zapatuko jardunaldia. Lore Salaberria elorriarra da euretako bat, eta

azaldu du mugimendu feministaren historian sakondu gura dutela egitarauagaz. Denboran atzera egingo dute, etorkizunera begiratzeko: "Durangalde feminista bat gura dugu". Egunerako aukeratu duten leloak ere horregaz lotura dauka: *Iraganeko pintzeletatik, Durangalde morera*.

Plazan, 11:30ean hasiko den berbaldian, mugimendu feministan militatu izan duten Euskal Herriko hainbat emakumek euren testigantza eskainiko dute, eta, tartean, Durangaldeko militanteak ere egongo direla esan du Salaberriak.

**Bazkaritik akelarerra**  
Eguerdian bazkaria egingo dute, eta 17:00etan serigrafia eta euskal kanta tailerrak. 19:00etan kalejiran irtengo dira herriko

Militatu izan duten Euskal Herriko hainbat emakumek euren testigantza eskainiko dute

plazatik, eta 22:00etarako akelarrea iragarri dute. Beraz, heziketa saioez aparte, ez da jai girorik faltako hilaren 20ko Egun Morean.



Egun Morea iragartzeko kanpaina 100 lagun baino gehiagok parte hartu dute.



**Moreno, Herrero eta Ugarrizaren aurkako epaiketa, sententzia zain**

**ELORRIO** M.O.  
2010eko udalbatzar batean PSE-EEko Mari Carmen Muñoz "faxista" deitzea egotzen diete Josu Herrero eta Rita Ugarriza herritarrei, eta orduko alkate Niko Morenori egoera ez saihestea leporatzen diote. Fiskaltzak eta akusazioak lau urteko kartzela zigorra eskatu dute Herreroentzat eta Ugarrizarentzat, eta bi urtekoa Morenorentzat. Epaiketa aurtengo otsailean hasi zen, baina atzeratu egin zuten, azken orduan akusazioak grabazio bat aurkeztu zuelako. Martitzenean egin zuten epaiketa, eta sententziaren zain geratu dira.

Niko Morenok azaldu du absoluzioa eskatu dutela. Bere arabera, grabazioan igartzen da Muñozen mintzaldia ez zela eten, eta Ugarrizaren ahotsik ez da agertzen. Herreroen kasuan, "mintzaldi lasaia" egin zuela dio Morenok.

Euren aurkako sententziaren bat egonez gero, zigorra leuntzea eskatu zuen defentsak, epaiketa bost urte beranduago egin dela kontuan hartuta. Alde guztiek onartu zuten.

## Garaizabalen gida, azken hogeituroteetako onena

'The best of the best' izendapena eman diote gidari



Mikel Garaizabal, Txinako Gournand saria jasotzen.

**ELORRIO** Amaia Ugalde  
Gourmand Awards lehiaketako arduradunen iritziz, Mikel Garaizabal elorriarraren *Bizkaiko txakolina*. *Bidaia* da azken hogeituroteetako ardoaren inguruko argitalpenik onena. 2013an jaso zuen saria, eta hogeigarren urtemugaren harira egindako lehiaketan berriro saritu dute. *The best of the best* izendapena eman diote liburuari.

Enologo elorriarra Txinako Yantai hirian egon da Gourmand saria jasotzen. Bizkaiko txakolinaren inguruko liburua Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zuen, turistek bideratuta. Ardo egiteko prozesuak, jate-txeak eta Bizkaiko lekuak agertzen dira bertan, adibidez.

## Ferixa Nausikoen kartel lehiaketako lanak ikusgai daude Iturri

**ELORRIO** M.O.  
Irailaren 5etik 13ra ospatuko diren Ferixa Nausikoen kartel lehiaketako lanak ikusgai daude Iturri kultur etxean. Hamahiru kartel aurkeztu dituzte, eta herritarrek botoa emateko

aukera edukiko dute ekainaren 20ra bitartean, hurrengo zapatu-arte, beraz.

Herritarrek euren iritzia eman ostean, epaimahai tek-

Hamahiru kartel aurkeztu dituzte, eta herritarrek botoa emateko aukera edukiko dute

nikoa batuko da, eta azken erabakia hartuko du, herritarren botoak kontuan hartuta. Udaleko ordezkariak, Jai Batzordeko kideak eta arte grafikoen alorreko profesionalak osatuko dute epaimahaia, antolatzaileek azaldu dutenez.

**500 euroko saria**  
Ekainaren 23an jakinaraziko dute zein egilek irabazi duen lehiaketa; irabazleak 500 euroko saria jasoko du.

## 280 umek parte hartu dute dantza jaialdian

Umeek herriko etxeetan eta tabernetan bazkaldu zuten

**GARAI** M.O.  
Joan zen domekan, umeen euskal dantzen jaialdia egin zuten Garain, eta, guztira, 280 umek parte hartu zuten. Gainera, eguraldia lagun zutela, ikusle ugari animatu zen jai girora.

Udalak antolatu zuen jaialdia, eta Gontzal Sarrigoitia alkateak, balorazioa eginez, dantzen alardera jende pilo hurreratu zela azaldu du, baita arratsaldeko erromeriara ere. Garaira etorritako umeek he-

rriko etxeetan eta tabernetan bazkaldu zuten. Ume gehienak Durangaldekoak ziren, tartean Garaikoak, baina Beasaingo talde batek ere parte hartu zuen.

Alkateak, balorazioa eginez, dantzen alardera jende pilo hurreratu zela azaldu du



Domeka goizean, dantzen alardea egin zuten udaletxearen aurrean.

# Liberian ebolaren kontra lan egiteko dirua biltzeko kontzertua

Elizan egingo dute kontzertu solidarioa, bihar

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Arrasateko (Gipuzkoa) Aita Menni ospitaleak Liberiako hiriburuan, Monrovia, ebolaren kontra egiten duen lanari laguntzeko dirua biltzeko kontzertua antolatu dute, Zaldibarren. We Are Like You izeneko kanpainaren barruan, hainbat kontzertu egin dituzte Euskal Herriko hainbat herritan, eta bihar izango da zaldibartarren txanda. Elizan, 20:00etatik aurrera izango da hitzordua. Juan Carlos Irizar pianista oñatiarrak eta Zaldibarko koralak parte hartuko dute kontzertuan.

Afrikako mendebaldeko kostaldean dagoen herrialde horretako osasun sistema berreraikitzen laguntzera bideratuko

dituzte Zaldibarren jasotako ekarpenak. Izan ere, Aita Menni taldeko arduradunek azaldu dutenez, iazko “ebolaren krisiak eragin zuen kutsatua izateko izuaren eraginez”, itxi egin behar izan zuten Liberiako kudeatzen zuten errehabilitazio zentroa. Osasunaren Munduko Erakundearen datuen arabera, ia 4.000 lagun hil ditu ebolaren birusak Liberialan.

Doako sarrera edukiko du biharko kontzertuak, baina bertaraten direnek diru ekarpenak egin ahaliko dituzte. Gainera, Liberialtik ekarritako eskulanekin eta arrokekin merkatu txiki bat ere egingo dute.

Osasun arloko hainbat proiektu martxan ipini gura di-



We Are Like You kanpainaren barruan, Euskal Herrian zehar hainbat kontzertu eskaini ditu Juan Carlos Irizarrek.

tu Aita Menni taldeak Liberialan: ebolak erasandako pertsonei laguntza psikologikoa eskainiko dien programa bat garatu, gaitasun mentalak dauzkatentzako unitate bereziak sortu, eta gaixo horiekin lan egingo duten profesionalei zuzenduriko preskuntza programak abiatu.

Juan Carlos Irizar pianistak eta Zaldibarko koralak parte hartuko dute biharko kontzertuan

Biharko kontzertutik aparte, We Are Like You kanpainari lagundu gura diotenek Laboral Kutxako ES51 3035 0001 56 0010129618 kontu zenbakian egin dezakete ekarpena.

1966. urtetik dabil Aita Menni elkarteak Liberialan kooperazio lana egiten.

## Gaztetxoaren artista sena landuko dute udalekuan

Uztailaren 1etik 30era antolatuko du Marixurriek

**ATXONDO** Joseba Derteano Marixurriek aisialdi taldeak udaleku irekia antolatuko du uztailaren 1etik 30era. Aurten, *Izan zaitez artista* leloagaz, gaztetxoei euren artista sena ateratzeko gonbita egingo diete.

Udaleku irekia 3 eta 12 urte arteko gaztetxoei bideratuta dago, eta adinaren arabera taldeka banatuko dituzte. Eskolako gela batean garatuko dira uztailko goizetan: 09:30etik 13:30era. Musika, dantza, margolaritza... Antolaturiko ekintzek gazte-

txoen sormenari bultzada bat ematea eta barruan dituzten dohainak azalatzeko izango dute helburu.

### Izen-ematea amaitzean

Izena emateko epea astelehenan amaituko da. Ludotekan egin daiteke 16:30etik 19:30era, eta posta elektronikoki bidez ere bai: [marixurriek@gmail.com](mailto:marixurriek@gmail.com). Prezioa epealdiaren arabera da: gutxienez 40 euro, eta gehienez bost aste egon daitezke -120 euro-.

## Gaztetxearen etorkizunaren inguruko hausnarketa abian

Herri batzar batera deitu dute gaurko, 20:00etan

### ATXONDO J.D.

Azkenaldian, gaztetxearen gaineko erabakiak hartzen dituen gazte asanbladaren batzarretara jende gutxi joaten da. “Lau katu batzen gara, eta nekatuta gaude”, azaldu du Kike Bilbaok. Horregatik, bultzada baten bila, gaia herrira zabaltzea erabaki dute. Horretarako, herri batzar batera deitu dute gaurko, 20:00etan, gaztetxean bertan.

Gaztetxearen inguruan badabil jendea, eta ekimenetan laguntzeko prestutasuna ere

badago, baina gero mugimendu hori ez da gazte asanbladan islatzen. Horregatik, egoera bideratzeko hausnarketa prozesua abiatu dute. Barne hausnarketa bat izango da. Aurrera begira gaztetxeak hartu beharko lukkeen bidearen gaineko herritarren iritzia jaso nahi dituzte. Ondoren, iritzi guztiak kontuan hartu, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko ibilbide-orria diseinatu gura dute. Horregaz batera, herritarren inplikazioa ere bilatu gura dute.

## Herrian erosteak dituen onurak zabaldu guran

Tokiko saltokiak sustatzeko kanpaina hasi dute

**IURRETA** Aitziber Basauri Herriko dendetan erosiz zuzen irabazten duzu, Iurretak irabazten du kanpaina abiatu dute udalak eta Dendak Bai merkatari elkarteak. Hilero 100 euroko opari txartela zotz egingo dute kanpainagaz bat egin duten herriko 22 saltokietarikoren batean erosketak egingo dituzten herritarren artean. Horretarako, dendan ipinitako kutxa batean sartu behar da erosketatik, izen-abizenak eta telefonoa jarrita. Hil bakoitzeko azken bari-kuan egingo da zozketa.

Helburuagaz bat etorrita abiatu dute kanpaina. Dendak Bai elkarteak Araceli Guerrero nabarmendu duenez, “merkatariak gu ezagutzeko eta iurretarekin herrian bertan

erostearen onurak zeintzuk diren azaltzeko” balioko du. Ildo berean, Iñaki Totorikaguena jarduneko alkateak gogoratu du herrigunea dinamizatzeko aldera sortutako ekimena dela: “Herriguneko saltokietan kontsumoa igotzeko ekimenak sustatu gura ditugu, eta trafikoa arautzeko ordenantza berriak ere lagunduko dio horri. Gune urdinean 50 aparkaleku daude doan bezero potentzial izan daitezkeen auzoetako iurretari horiek ere erakartzeko”. Aparkatzeko gune horren garrantzia nabarmendu du Dendak Bai elkarteak presidente Guillermo Oarbeaskoak ere bai.

Urtea amaitu arte iraungo duen kanpainara merkatari gehiago batzea espero dute.

## Juan Antonio Burgosi eman diote Iurreta Institutuaren Saria

### IURRETA A.B.

Fakturazioaren %95 atzerriko enpresetan lortzen duen SVP Broadcast Microwave enpresaren sortzailea eta Iurretako institutuko ikasle ohia den Juan Antonio Burgosi eman diote hamabigarren aldian duen Iurreta Institutuaren Saria. 1986an amaitu zituen Lanbide Heziketako ikasketak. Gero, ingeniari teknikoa hasi zuen Eibarko Unibertsitate Laborealean. Iurretako institutuan ikasteaz “harro” sentitzen dela dio, eta hartutako hezkuntzak



J. ANTONIO BURGOSI



Iurretan dauden 35 saltokietatik 22k egin dute bat kanpainagaz.

askorako balio izan diola. Iurretako institutuak Burgosi esker ona adierazi nahi izan dio, haren izaera ekintzaileagatik eta ibilbide profesionalagatik.

SVP hargailu-transmisioaren bidez, bideo irudiak transmititu daitezke kable barik helikoptero eta hegazkinetatik, kalean egindako saio eta kirol emanaldiak zuzenean emititzeko. 1992an sortu zuen enpresa Burgosiek, Iurretan. Radio Ibaizabal irratiarako unitate mugikorra sortzea izan zuen aurreneko lana; Durango Irratia izan zen hurrengo bezeroa.

# Sanantonioak ospatzeko aukerako hitzorduak, asteburuan, Urkiolan

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak kontzertua antolatu du, esaterako, biharko

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Biharko, San Antonio eguna, eta etziko, Errepetiziño Eguna, egitarau zabala osatu dute Urkiolan. Ohiturazko ekintzak eta hainbat nobedade izango dira

Urkiolara gerturatzen direnentzat aukeran, asteburuan. Bihar, 19:00etatik aurrera, esaterako, Bilboko Garaizarko Matsorriak abesbatzak eta Urduñako abesbatzak kontzertua eskainiko

dute, Urkiolako santutegian. Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen Udaberriko Kontzertuen programaren barruko emanaldia izango da, eta eliz musika eta Euskal Herriko



Bilboko Matsorri abesbatzak (argazkian) eta Urduñako abesbatzak emanaldia eskainiko dute.

zein munduko beste herrialde batzuetako folkloregaz osaturiko errepertorioa eskainiko dute. Emanaldi horren aurretik, bestetik, Durangoko Txiri Txiri taldekoek dantzarako musika eskainiko dute, 17:30ean hasita, elizaren aurreko plazan.

Goizean goiz abiatuko dute San Antonio jaien egitaraua, bihar: trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen, eta, San Antonio egunean ohitura denez, gaudu eta baserriko produktuen azoka ipiniko dute Urkiolan. Gainera, 10:00etatik 13:00ak arte, orduro, baita 18:00etan ere, meza emango dute. Bilboko gotzainak emango du meza nagusia, eta, horren ostean, Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluzek bertso saioa eskainiko dute.

Errepetiziño egunean ere, etzi, egitarau zabala eskainiko dute Urkiolan. Juan Mari Uriartek emango du meza nagusia, eta Leioako abesbatzak kantatuko du bertan. 13:00etatik aurrera herri kirolak izango dira ikusgai. Bestalde, 12:00etan, ume zein helduentzako bi orduko

mendi ibilaldia abiatuko dute. Amaieran, Eusko Label ziurtagiria duten oilaskoak dastatu ahal izango dituzte.

San Antonio jaien asteburu honetarako, gainera, gaurtik astelehenara arte, Gerediaga Elkarteak 50. urteurrenaren harira antolatu duen *Zuri-beltzean klik* argazki zaharren erakusketari ibiltaria ipiniko du Urkiolan. Durangaldearen iragana 300 argazkitan erakusten du argazki bilduma horrek.

## Autobusa doan

Udalak doako autobusa ipiniko du, zapatuan zein domekan, Urkiolara joateko; Txanporta plazatik aterako da 09:00etan, 10:00etan eta 11:00etan, eta Traña-Matienan ere egingo du jendea hartzeko geldialdia.

Ume eta helduentzako proposa den mendi ibilaldia abiatuko dute, etzi, Urkiolatik

## Konposta egiteko kanpaina martxan da

Birziklapena sustatzeko ekimenak abiatu dituzte

**OTXANDIO** Joseba Derteano Hondakinak birziklatzeko kultura sustatzeko, hainbat ekimen abiatu ditu herritar talde batek. Esaterako, etxeetako hondakin organikoak konpost bihurtzeko herritarrei beharrezko azpiegiturak eta aholkularitza eskaintzea da ekimeneetako bat. Proiektu horretan parte hartzen dutenek dohainik jasoko dute konposta egiteko material guztia.

Etzerik etxe konpost proiektuan parte hartzeko izen-emate orri bat banatu dute. Orri hori bete, eta udalean entregatu behar da. Bestela, posta elektronikoz ([idazkaritza.otxandio@bizkaia.org](mailto:idazkaritza.otxandio@bizkaia.org)) eta udaletxeko telefonora deituta ere eman daiteke izena. Konposta egiteko aukera

bi daude. Bata, autokonposta da, hau da, nork bere ortu edo lorategian egitea. Bigarren aukera auzokonposta da: herrian zehar dauden berdeguneetan beste herritar batzuekin batera konposta egitea, hain zuzen.

### Karpa informatiboak

Herritarrengana gehiago hurbiltzeko, gaur, 19:00etatik 21:00etara, eta domekan, 12:00etatik 14:30era, karpa bat muntatuko dute Otxandioko plazan. Konpostari buruzko informazioa eskainiko dute, eta proiektuan izena emateko aukera egongo da.

Konpostaz gainera, hondakin mota guztiak zelan kudeatu azaltzen duen birziklapen gida bat banatuko dute etxetik etxera.

## Legañoko jaiak kulturarteko topaketekin ospatuko dituzte

**BERRIZ** A.U.

Urtetako etenaren ostean, iaz berreskuratu zituzten Legaño auzoko jaiak. Aurten ere, jai giroa egongo da Legañon, eta, iaz bezala, kulturarteko jaiak egingo dute bertan. Domekan, 11:30 aldera, Ireminie eta San Lorentzo dantza taldeen emanaldia egongo da, eta orduantxe hasiko da kulturarteko topaketa, hainbat tailerregaz eta munduko janari dastaketagaz.

Aurreiritzien eta zurrurruen inguruko erakusketak ere jarriko dute Legañon, eta 16:00etan musika dantzagariagaz gozatzeko aukera egongo da; izan ere, Sierra Maestra talde kubatarrak conga, *zumba* eta txa-txa-txa doinuak eskainiko ditu.

## Berriztu azoka Nepalen alde egingo dute, zapatuan

Bigarren eskuko azoka berezia izango dute zapatu arratsaldean, udaletxe alboko parkean

**BERRIZ** Amaia Ugalde

Zapatu honetan, Berriztu bigarren eskuko azokaren hirugarren edizioa egingo dute. Aurtengoa azoka berezia izango da: Berriztuko kideek gertuko lagun bat dute Nepalen, GKE batean lanean, eta, udaberrian izan diren lurrikaren ostean, bigarren eskuko azokan batutako dirua Nepalera bideratzea erabaki dute.

Bigarren eskuko postuak egoteaz gainera, Nepalen eginko argazkiz osatutako erakusketak eta postalak ere egongo dira, eta Paula Heras eta Nagore Txintxurreta artistek mural bat margotuko dute. Shinova taldeak kontzertua eskainiko du. 15:00etatik 20:00etara, udaletxe

alboko parkean izango da azoka, eta eguraldi txarra badago, berriz, probalekuan.

Azokan mahaia jartzeagatik ordaindutako dirua bideratuko dute Nepalera, eta partaideei aukera emango diete salmentan ateratakoa ere, gura izanez gero, bertara bideratzeko.

### Durango eta Zornotzan

Nepalen aldeko beste ekitaldi bi ere egongo dira asteburuan, eskualdean: Zornotzan, Beñat Egiarte tenorrek elkartasun kontzertua eskainiko du gaur, Andra Maria elizan. Durango, merkatutxo egingo dute zapatuan, Andra Mariko elizpean, Zarriar Barri GKEak antolatuta.

**katerin ardoak**  
**inñaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

[saltsan.com](http://saltsan.com)

**hitz** **#gomendioak**

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
liburudenda [info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
<p><b>BACK TO LEIZARRAGA</b> Kepa Altonaga (2015)</p>	<p><b>FRODE ETA BESTE BIHURRIAK</b> Ole Lund Kirkegaard (2015)</p>	<p><b>AKATSA SISTEMAN</b> Lurra (2014)</p>



## Auzo bideak garbitzeko auzolana egingo dute hilaren 20an

**MAÑARIA** Markel Onaindia Tresnak eskuetan hartu, eta auzo bideak garbitzera irtengo dira berriro mañariarrak hurrengo zapatuan, hilaren 20an. Joan zen astean egin zuten auzolanaren lehenengo txanda, eta zapatukoa bigarrena izango da. Auzo bideak eta ubideak garbitzea da zeregina. Udalak antolatuta du auzolana, eta deialdira 30 bat lagun animatu dire-

Udalak antolatzen du auzolana, eta deialdira 30 bat lagun animatu direla azaldu du Endika Jaiok

la azaldu du Endika Jaio alkatetza. “Parte hartu gura duenak badu denbora oraindik izena emateko”. Herritarrek izena eman dezatela eskatu dute, lana horren arabera antolatzeko.

### 27an, bazkaria

EH Bilduren gobernu taldeak azken urteetan sustatutako dinamika da. Urtero auzolan egunak eginen dituzte sasoi honetan, baina urtean ere garbitzen dituzte ekintza batzuk; azokako lanetan laguntzea eta pilotalekuko kristalak garbitzea, adibidez. Bazkaria prestatuko du udalak ekainaren 27rako, boluntarioei eskerrak emateko.

## “Azkonizagan asko gozatu dut nire lanagaz”

Kontxi Azkonizaga jubilatuta da, eta jatetxeak atea itxi du



Kontxi Azkonizaga, jatetxearen aurrean.

**IZURTZA** Joseba Derteano Kontxi Azkonizaga ugazaba jubilatuta ostean, Azkonizaga jatetxeak atea itxi zuen maiatzaren 31n. Amaiera jarri zion, horrela, 58 urteko historiari. Eraikina osorik saltzen saiatu da, baina oraingoz ez du lortu.

Kontxik 51 urte eman ditu Azkonizagan lanean: “Jatetxea nire bizitza izan da. Baina asko gozatu dut beti nire lanagaz”, dio segurua. Azkonizaga taberna 1957an ireki zuten Kontxiren aitak eta amak. 1960ko hamarkadan jangela bat ireki zuten, eta bazkari-afariak zerbitzatzen hasi ziren. Harrobian lanean zebiltzanak ez ezik, jatetxea errepide ondoan dagoenez, autoen ohiko geralekua ere izaten zen: “Or-

duan ez zegoen autopistarik, eta askorentzat oporretara joateko igarobidea jatetxe ondoko errepidea zen”, gogoratu du

Kontxi Azkonizaga 1964an hasi zen jatexean lanean. 1987an, goiko jangela txikia ireki zuten, baina birmoldaketarik handiena 1992an etorri zen: eraikina eraberritu egin zuten teilatutik hasi eta sukalderraino, eta goialdean jangela handi bat ireki zuten: “Batuetan, 300 lagun izaten genuen oraindik”.

Kontxik ez du jatetxean lan gehiagorik egingo, baina jatetxeak bere eguneroko pentsamenduetan jarraituko du. Izan ere, urte horietako guztietako bizipenak liburu batean batzeko asmoa du.

## Elektrizitatearen faktura ulertzen irakatsiko dute

**MALLABIA** Jone Guenetxea Etxeko elektrizitatearen faktura ulertzen laguntzeko ekimena jarriko du martxan Debarreneko Debegesa garapen agentziak, aurrezte eta eraginkortasun energetikoaren inguruko kanpainaren barruan. Ekainaren 18an kultur etxean jarriko duten gunean faktura ulertzeko gakoak zeintzuk diren azalduko dituzte, eta, gainera, aurrezten laguntzeko aholkuak ere emango dizkiete bertaratzen diren herritarrei. Goizean, 10:00etatik 14:00etara eta, arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara egongo da informazio gunea zabalik.

## San Adrian jaiak ospatuko dituzte Gereaa auzoan

**MALLABIA** J.G. Ekainaren 16an, Adrian deunaren egunean ekingo diete jaiak Gereaa auzoan, 12:00etako mezagaz. Ekainaren 20an, zapatuan, berriz, umeek jolasekin gozatzeko aukera izango dute 16:00etan hasita. 17:00etan, ostera, briskan jokatu dute. Domekarako, aldiz, goizeko mezaren osterako, dantza erakustaldia, herri kirolak eta umeen jolasak antolatu dituzte. Arratsaldean, asto proben txanda izango da. Azkenik, eguna amaitzeko, janariz eta edariz betetako karretilla bat zozkatuko dute.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Autodeterminazio eskubidea ahotan

**ZORNOTZA** > *Autodeterminazioa vs erabakitze eskubidea* hitzaldia eskainiko du Asier Ipiñazar Orreaga taldeko kideak, ekainaren 16an, 19:00etan, Zelaia zentroan. Kontzeptu bi horien inguruko azterketa egin du Ipiñazarrek, eta erabakitze eskubidea eta autodeterminazioa ez direla gauza bera babestuko du.

### AHTa gelditzeko aldarria, Donostian

**ATXONDO** > Bihar, Donostian *AHT gelditu orain!* leloagaz egingo den manifestazio nazionalagaz bat egin dute Atxondoko hainbat elkartek. 17:30ean, Donostiako Bulebarretik abiatuko den manifestaziora joateko deia egin diete elkarte horiek herritarrei. Gaztetxearen aurreko geltokitik aterako dira atxondarrak, 15:30ean.

### Mas Curvasen VIII. urteurreneko jaiak

**DURANGO** > Egun osoko egitaraua antolatu du Mas Curvas motozale elkarteak biharko. Elkartearen zortzigarren urteurrena ospatzeko, esaterako, bi ibilbide egingo dituzte motorrean, goizean bata eta arratsaldean bestea. Gainera, tartean, bazkaltzeko eta afaltzeko hitzorduak ere ipini dituzte.

## Gorka Fraile

Gorka Fraile presoaren egoeraren berri emateko, beste behin salaketa prentsaurreko bat. Gaixotasun larri bat daukan Euskal preso politikoa. Gorka Fraile. Ekainaren 9an Badajozeko ospitalean egin zioten ebakuntzaren aurretiko egoera zailtzen saiatu ziren polizia tratu ankerraren bitartez. Tratu krudel eta onartezina inorentzat, are gutxiago preso gaixo batez ari garenean. Sakabanaketa politikak osasun eskubidea urratzen du, konfiantzazko medikuek ezin dutelako artatu. Tratu duinerako eskubidea urratzen du, polizia jarrera oldarkorra eta ospitalearen pasibotasuna tarteko. Espetxe politikaren oinarrian dago sufrimenduen areagotzea, presoaz gain bere ahaideei ere eragiten diona. Tratu txar psikologikoen oinarriak ezartzen ditu Gorkak astelehenean sufritutakoak. Zentzu horretan, adierazgarria da, etsipenaren menpe, Gorkak berebizikoa zen ebakuntza bertan behera uzteko hasieran zuen nahia.

Non daude bermeak lekualdatze eta zainketa? Non dago ospitalearen ardura? Non dago haien gaixoen onerako dena eta ez dena erabakitze eskumen, ardura eta obligazio osoa duten medikuen kontzientzia? Beste behin geratu dira ebidentzian. Ebidentzian, egungo espetxe legeriak presoak eta euren ingurua zigortzeko helburua duelako. Gure senideen izaera politikoa ukatuz, mendekuan oinarritutako neurri eta tratu berezituak aplikatzen dizkietelako. Presoa kartzelatik ateratzen den une beretik, ospitaleratzea eta prozesu osoa irauten duen bitartean, konfiantzazko medikuaren eta abokatuaren kustodia exijitzen dugu. Horregatik, euskal preso politikoen senide eta lagunok sakabanaketagaz amaitzeko beharra dagoela helarazi nahi diogu euskal gizarteari. Kartzeletan denborak ez duelako gaixotasun baten alde inoiz egiten, eta, gainera, preso politikoen gaineko beste estutze baten aurrean gaudelako. Gorka etxean nahi dugu, denak etxean nahi ditugu.

## Eskualdetasuna aldarrikatuz

*Honako hau agiri luzeago baten laburpena da. Gerediaga Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko egin zen Topa Gerediaga jaiaren eskualdetasuna aldarrikatzeko irakurri zen dokumentu hori. [www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus) webgunean irakurri daiteke idatzi osoa.*

Durangaldearen izaera berezia azpimarratu nahi dugu 50 urte betetzen ditugun honetan. Eskualde kontzientzian eragiten jarraitzeko helburua berresten dugu, eta horretarako eskaera eta deia egin nahi diegu eragile guztietako erakundeei eta eskualdeko herritarrei.

Durangaldearen iragan historikoan sakontzeko, garrantzitsua deritzogulako zer garen jakiteari. Beharrezkoa da gure iragana ezagutaraztea eta belaunaldi berriei transmititzea.

Eskualdearen garrantzia aldarrikatzeko eta indartzeko. Herriaren eta lurralde historikoaren arteko erdi mailako unitate espazial honi zor zaion garrantzia emateko, lurralde antolamenduan orokorrean beharrezkoa delako.

Mankomunitateari, eskualde mailako erakundeari, beharrezko dituen bitartekoak eta laguntza eskaintzeko, Durangaldearen garapen ekonomikoa eta bizilagunon bizi kalitatea hobetzea izan dezala helburu nagusi eskualdeko herri mugak gaindituta, batasun batean.

Eneko Alberdi. Etxerat

Nerea Mujika. Gerediaga Elkartea



**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

**Maite Usategi (Durango, 1967 ) eta Rakel Calvo (Durango, 1976) | Bateginez**

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
22 urteko ibilbidea egin du Bateginez gobernuz kanpoko erakundeak, eta agur esateko ordua heldu zaio; agur gazi-gozoa. Hala ere, testigantza utzi gura du. Farmazia proiektuekin eta haurrak babesean hartzeko egitasmoekin hasi zen Pochutan (Guatemala), eta genero indarkeriagaz lotutakoa izan da han abiatutako azken proiektua.

**Bateginezek bere bidea egin du. Zelan sentitzen zarete?**

**Maite Usategi:** Amaiera garrantza izan da. Gurago izango nuke horrela izan ez balitz, baina Pochutan sortutako egoerak horretara eraman gaitu. Azken bidaietan ikusitakoak konfiantza falta sortu digu, eta horrela ezin da lanik egin. Herri mailako GKE bat gara. Herritik herrirako kooperazioa da gurea. Ez dugu beste inogaz lan egiten, eta, konfiantza galdua, ez genion zentzurik ikusten jarraitzeari.

**Rakel Calvo:** Modu horizontalean egindako kooperazioa sustatu gura izan dugu beti Pochutako Apsadec elkarteagaz, erabakiak denon artean hartuta. Baina oso erakunde piramidala aurkitu dugu. Bizpahiru lagunek erabakitakoekin ados ez geundela aditzera eman arren, bereari eutsi dio, eta beste inork ez dio aurre egin. Dirua eskatu du, proiektuetan parte hartzeko.

**Zerbitzuen truke, dirua eskatu diete hango herritarrei, beraz.**

**R.C.:** Hala da, eta ez digute ezer esan. Diru kontuak beti ondo etorri zaizkigu, baina gehien behar duenari eskatu dio Apsadec dirua. Arrazoitu digute era independentean jardunez edo etorkizunean beste norabide bat hartuz gero, proiektuak garatzeko dirua batu gura izan dutela. Horregaz ados egon gaitzke, baina beste bide batzuk erabiltzen badira: proiektu berriekin, erakundeetara joz, beste elkarte batzuekin... Azterketa bat ere egin genuen elkarrekin.

**Elkarrekin hazi diren GKEak zaretu Bateginez eta Apsadec.**

**R.C.:** Parez pare joan gara hazten. Harreman sinbiotikoa izan da. Bateginezko lehenengo kooperanteak Pochutan zebiltzan moja batzuekin hasi ziren lanean, elkarlan horrek etorkizun handirik izan ez zuen arren. Hala ere, bazegoen hor talde bat Apsadecen sorrerako (1998) nukleoa izan zena. Bateginezek hasitako farmazia eta haurrak babesean hartzeko proiektuak gestionatzeko beharrezko ikusi

## “Beste mundu justuago bat posible dela sinisten jarraitzen dugu”

Bateginez GKEak amaitutzat eman du 22 urteko ibilbidea, Pochutan sortutako egoeraren ondorioz; kooperazioaren ikuspuntu kritikoa galtzen uzten dabiltzala uste dute Maite Usategik eta Rakel Calvok



Lehior Elorriaga

zuten pertsona horiek heztea eta GKEa sortzea; orduantxe sortu zen etxe soziala eraikitzeko egitasmoa ere –Apsadecen egoitza eta zerbitzuak batu ditu–.

**Bide desberdinak hartu dituzue.**

**M.U.:** Ez, azken urteotako kontua izan da. Pochutan gauzak aldatzen saiatu gara; eskubidez dagokiena lortzeko borrokatu daitezten eta erakundera jo dezaten: osasuna, hezkuntza, emakumea... Guk horretan lagundu baino ezin genezake egin. Gertatu dena da bizpahiru lagunek GKEaren zuzendaritza hartu dutela. Konfiantza galdu, eta huts egin digutela sentitu dugu.

**Pochutara mugatu zarete beti?**

**R.C.:** Guatemalan denboran oso mugatutako beste proiektu batzuk garatu arren, gero Pochutan batu dugu lan guztia.

**M.U.:** Herritik herrirako kooperazioa egitea erabaki genuen. Herrialde osoan zer gertatzen zen erakusteko Pochuta eredu-tzat jarri, eta herritarrak sentsibilizatzeko bidea izan zitekeela pentsatu genuen. Guatemalan dauden arazo guztiak batzen di-

ra Pochutan. Gainera, Erdialdeko Amerikako hainbat herritan ikusi zenezake egoera bera.

**Kooperazioa, elkartasuna... onenak emanda dago.**

**R.C.:** Berlingo harresia jausi ostean, nazioartean gauzak beste era batera egiteko testuingurua sortu zen 1990eko hamarkadan. Hego Euskal Herrian ere –trantsiziotik atera berri– begiak munduari zabaltzen genbiltzan 1980ko hamarkadan, eta ezkerreko mugimendu inportante bat sortu zen. Hori Latinoamerikan eta Erdialdeko Amerikan sortutako ezkerreko mugimenduetatik –Behartsuen Elizagaz batuko zen– elkartu zen. Hor sortu zen 0,7a eta kooperazioa.

**M.U.:** Orain, baina, loguratu egin da, interesa egon delako. 90eko hamarkadaren amaieran kooperaziorako diru publikoa zegoen, kalean eskatu zelako. Hala ere, teknifikazio gero eta altuagoak espezializazio handigoa ekarri zuen. Tekniko espezialistek boluntarioak ordezkatu zituzten, GKEak herritarrengandik gero eta gehiago urrunduz. Handiagoa da erakundeekiko

“*Bidezkoa delako kooperatu, hori izan zen Bateginez lehenengo leloa*”

menpekotasuna ere. Bide horretan asko kanpoan geratu ziren.

**Kooperazioa aldatu egin da.**

**R.C.:** Gizartea ere bai. Gabeziak betetzen joan da administrazioa, gizarte aktibo izatetik pasibo izatera igaroz. Hala ere, badago oraindik honetan sinisten duenik. 2010ean Bateginezek une latzak bizi izan zituen, eta jendeak eta erakundeek erantzun egin zuten. Gainera, orain hainbat mugimendu dabiltza sortzen.

**M.U.:** Urteotan kooperazioa zer den ikasi dugu guk. Orain bestelakoa da ikuspuntua: kredituak lortzeko edo Pochutara joan gura dutelako etorri zaizkigu...

**Ikuspegi desberdina...**

**R.C.:** Ikuspuntu kritikoa galdu dela uste dut. Karitatearen ikusmoldera eramateko joera orokorra dago. Hori ez da gura bidea.

**M.U.:** Zergatik bizi dute egoera hori? Espiritu kritikoa hori galtzen dabil. Murrizketek izan dute eragina horretan.

**Urte hauetako balorazioa?**

**M.U.:** Saltsa guztietan sartu gara. Askok ikasi dugu 22 urteotan.

**R.C.:** Kalera irteteko giza baliabide gutxi izan dugu azken urteotan. Baina hori aldatzeko ahalegin handia egin dugu.

**Eta orain zer?**

**R.C.:** Testigantza utzi nahi dugu, norbaitek lekukoa hartu dezan. Hori bai, deszentralizatu-tako garapenerako kooperazioa babesten jarraitzen dugu; injustizia sentsazioak bultzatutako kooperazioan sinisten dugu.

**M.U.:** *Bidezkoa delako kooperatu* izan zen Bateginez lehenengo leloa. Mundua txarto antolatuta dago; oso bidegabea da. Mundu justuago bat posible dela sinisten jarraitzen dugu. Ez diogu horri bizkarra ematen.

# UDAKO GEHIGARRIA



EKAINAK **13**

larunbata



Behi-haragiaren **12€**-tik gorako erosketengatik

**%20** BEHI  
haragian

- Haragi xehatuak eta hanburgesak sustapenetik kanpo daude. - Sustapen baliorduna Eroski hipermerkatuetan eta supermerkatuetan, eta trukagarria edozein EROSKI hipermerkatutan eta supermerkatutan, bitxi-clendak, optikak eta gasolina-zerbitzuguneak (auto-ordainketarako bidea izan ezik) eta Eroski Bidaiak barne. - Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta-gunean.



Zure **EROSKI club**  
txartelean itzuliko  
dizugu hurrengo  
erosketetarako.





**bagoaz**

[www.bagoaz.com](http://www.bagoaz.com)

Txinurrisolo, 6 • 48220 Matiena • Tel.: 944 657 577 • Mug.: 639 346 506 • [info@bagoaz.com](mailto:info@bagoaz.com)

**• 4. urteurrena •**



# HEGOAFRIKA



# MARRAZO ZURIAK IKUSI



# VIETNAM



# KANBODIA



# MAROKO

# NEURRIRA EGINDAKO BIDAIK

# “Ingelesa naturaltasunez ikasten dute umetatik, eta pozik dabilta”

Kids&Us eskolak ingelesa umetatik barneratzeko metodologia eskaintzen du



Gurasoak seme-alabekin, Plateruen plazan, Kids&Us eskolak egoitza duen tokian.

**> HEZKUNTZA** J. Derteano Kids&Us eskolak ingelesa ikas- teko beste ikuspegi bat proposa- tzen du. Ingelesa umetatik eta modu naturalean barneratu dai- tekeela frogatzen dabilta, mete-

dologia berritzaile baten bidez. Metodologia hori saritua izan da. Hizkuntzen arloan aditua den De Taalsector webgune bel- gikarrak sustatutako sariketan (Language Industry Awards)

2014ko Hizkuntza Produktu Onenaren Saria lortu zuen.

Eskolan dabilta umetxoek eta euren gurasoek ez dute sa- ririk banatzen, baina euren iritziak edozein sarik besteko

garrantzia du. Lau gurasogaz elkartu gara; 4 urteko haurrak dituzte, eta astean ordubeteko eskola hartzen dute. Lehen ikas- turtea amaitzean dela, guraso guztiak ikastetxearen metodo- logia goraiatu dute.

Gema Gomezek eta Fernando Taberak Ekain, 4 urteko semea, dute ikastetxean. Taberak metodo- logiaren “naturaltasuna” azpimarratu du: “Ez dute nahi- taezko zerbait balitz bezala ikus- ten. Jolastuz ikasten dute, eta, gure ustez, hori garrantzitsua da”. Eduardo Peñak, Elaiaren aitak, “monotonia apurtzen” duela dio: “Gure sasoiaren gra- matika eta antzeko kontuak ziren nagusi; astun eta zurrun egiten zitzaigun. Bai, Fernan- dok esan duenagaz ados nago, Kids&Us-en dena gertatzen da modu naturalagoan”.

Naturaltasunaren atzean “ondo egituratutako metodo- logia” ikusten du Gema Lopezek: “Dena oso landuta eta pentsatu- ta dagoela uste dut. Sari bat ere irabazi dute”.

Esaterako, ingelesa ardatz hartuta, eskolak gai baten ingur- uan antolatzen dituzte. Gaiak gaztetxoek interesekoak izan daitezkeen saiatzen dira: “Gaz- tetxoek egunerokotasunean presente dauden gaiak lantzen dituzte. Horrela, dena gerta-

tzen da naturaltasunez”, dio Rakel Martinek, Aialaren amak. Arrazoia bata edo bestea izan, guraso guztiak aho batez azaldu dutenez, kontua da umeak “oso pozik” joaten direla ikastetxera.

Umeek ingelesarekiko inter- esa dutela sumatzen hasi dira. Gomezek dio egunero jarri behar dizkietela hamar minu- tuko CDak ingelesez, “baina, sarritan, jarri aurretik eurek eskatzen dute; diotena ulertu ez arren, interesa nabari zaie”.

Umetatik euskara, gaztela- nia eta ingelesa lantzea zama astunegia dela uste dutenekin ez daude ados: “Umeak *esponjak* dira adin horietan, dena barne- ratzen dute. Gure etxean, perso- naren arabera hizkuntza aldatu behar badute, automatikoki egi- ten dute, behartu barik”.

Ingeles mailaren gaintetik, umeek erakutsitako poztasu- nak eta interesak asebate di- tu gehien gurasoak. Badakite epe luzerako apustua dena, eta orain ereindako haziak etorki- zunean seme-alabei ingelesa modu naturalean garatzea ahal- bidetzea espero dute.

Ohiko eskolez gainera, Aste Santuan zein udan antolatzen dituzten askotariko ekintzak ere balio erantsi bat eskaintzen dutela azpimarratu dute guraso guztiak.

**Madness at the Museum**  
**Fun Weeks**  
 Udaleku Irekiak Ingelesez  
 3 - 10 urte  
 Udako oporretarako planik onena!  
 Fun Weeks 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat zuzendutako udaleku irekiak dira  
 Asteka antolatzen dira  
 Ekainaren 29tik - Uztailaren 31ra  
 Abuztuaren 31tik - Irailaren 4ra  
 Kids&Us Durango  
 Durangoko Plateruen Plaza 8 - 48200 Durango  
 T. 946 570 113 / 609 533 343 - durango@kidsandus.es

**Ingelesa 1. urtetik aurrera**  
 1 - 8 urte  
 ATE IREKIEK JARDUNALDIA  
 OSTIRALA, ekainak 19. SAIOAK: 18:00 / 19:00  
 Etor zaitetz ateak irekitzeko jardunaldia: haurrentzako bereziki diseinatu dugun metodo berritzailea ezagutuko duzu. Txikiak ondo pasatuko dute haur-jolasekin eta ingelesez arituko den ipuin-kontafariarekin.  
 Kids&Us  
 school of english  
 YOUR TRIBE SPEAKS  
 ENGLISH  
 Kids&Us  
 school of english



# Udan ere euskahalduntzeko aukera eskaintzen dute barnetegi ibiltariak

AEK-k aurten ere antolatu ditu oinez zein bizikletaz egiteko barnetegi ibiltariak, udara begira

**> EUSKARA** Joseba Derteano  
AEK-k udan antolatzen dituen barnetegi ibiltariak tokian tokiko euskara eta euskalkiekin hartu-emanetan jartzeko eta mintzapraktika egiteko aukera eskaintzen dute. Euskal Herriko paisaia ederrak lagunartean ezagutzeko aukera paregabea ere bada. Aurten, oinezkoentzat zein bizikletarientzat antolatu dituzte barnetegiak.

Oinezko barnetegia uztailearen 18tik abuztuaren 1era izango da. Uztailearen 8a da izena emateko azken eguna: *ibiltaria@ae.org*. Euskal Herriko mendebaldetik ekialderako ibilbidea osatuko dute. Gorbeian hasi eta Hiru Erregeen Mahaira heldu arte, Euskal Herriko hamaika tokitatik (Arantzazu, Aizkorri, Aralar eta Irati, adibidez) igaroko dira; tartean Durangaldetik ere bai. Otxandion emango dute gau bat, eta hortik Orixol eta Anbotorantz abiatuko dira

Bizikletan egiteko barnetegi ibiltaria abuztuaren 1etik 15era izango da, eta uztailearen 22a da izena emateko azken eguna. Ur-

**Oinez, uztailearen  
18tik abuztuaren  
1era izango dute  
barnetegia; bizikletaz,  
abuztuaren 1etik 15era**

duñan hasi, eta Zarautzen amaituko dute aste bi iraungo dituen abentura. Etxarritik, Bardeatik, Orreagatik, Urepeletik eta Aralarretik ibiliko dira, esaterako. Mendatez mendate 1.000 kilometro inguru egingo dituzte. Lehenengo egunean, Urduñatik irten, eta Otxandiora helduko dira, eta han egingo dute lo.

Barnetegi batean zein besteak euskaraz berba egiteko

uneak eta guneak ahalbidetzea da helburua. Iaz, Otxandion nagusientzako ipuin kontalari saioa egin zuten euskaraz, eta aurten, seguruenik, ekimena errepikatuko dute: "Iaz, harrera oso ona izan zuen", gogoratu du azken bost urteetan barnetegi biak egin dituen Asier Arroita. Arratsaldetik iluntzera Otxandion kaleetan poteoa egin, eta otxandiarrekin euskaraz mintzatzeko aukera ere baliatuko dute aurreko urteetan egin duten moduan: "Otxandion edozein bazterretan aurkitzen dugu euskaraz ibiltzeko aukera, eta hori abantaila handia da parte hartzen dutenentzat".

Barnetegi batean zein bestean parte hartzeko prezioa 530 euro izango da. Prezio barruan sartzen dira ibiltari guztien ekipamenduak, eramateko laguntza-furgoneta, lo egiteko lekuak, jatorduak, eta ibilbideari buruzko liburuxkak zein mapak.

## Barnetegia Otxandion

AEKren udarako beste eskaintza bat familia barnetegia da. Gurasoen eta seme-alaben artean euskaraz hitz egiteko ohitura sendotzea du helburu. Izan ere, sarritan, gurasoak euskara

ikasten ibiliagatik, seme-alabekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza gaztelania izaten da. Ohitura horiek aldatzea da barnetegiaren helburua.

Familia barnetegietako bat Otxandion egingo dute lehenengo. Abuztuaren 3tik 14ra izango da, eta izen-ematea hasita dago. Koikili aterpetxean hartuko dute ostatu. Gurasoek eskolak hartuko dituzte, seme-alabak begirale-hezitzaileen zaintzapean dauden bitartean. Gainera, askotariko irteerak ere egingo dituzte.



Mendirik mendi paisaia ederrekin gozatzeko aukera eskainiko dute. Asier Arroita



## DURANGALDEKO AEK

DURANGON 94 681 73 49 / [abarrak@ae.org](mailto:abarrak@ae.org) · ELORRION 94 658 21 11 / [abizari@ae.org](mailto:abizari@ae.org)  
ZORNOTZAN 94 673 43 70 / [zornotza@ae.org](mailto:zornotza@ae.org) / [zaldibar@ae.org](mailto:zaldibar@ae.org) / [abadino@ae.org](mailto:abadino@ae.org) / [berriz@ae.org](mailto:berriz@ae.org)



Ina Oleaga | Alpino Tabira mendizale taldeko kidea | Durango, 1947

# “Zailtasun berezirik bakoak dira egingo ditugun ibilbide gehienak”

Kroaziara eta Montenegroa hamabost eguneko bidaia antolatu du Alpino elkarteak abuzturako

**> MENDIA** Itsaso Esteban

**Kroazia eta Montenegro izango dira, aurretik, abuztuko bidaiaren helmuga. Zergatik aukeratu dituzue leku horiek?**

Oso mendialde zein kostalde ederreko lekuak direlako pentsatu dugu aurretik herrialde horietara bidaiatzea. Bazkide batek proposatu zuen Kroazia eta Montenegroa joateko aukera. Aurreko urteetako bidaietakoak baino ibilaldi lasaiagoak egingo ditugu aurretik.

**Prestakuntza fisiko berezirik ez da behar, beraz, egingo dituzuen ibilaldietarako?**

Ez; orokorrean, zailtasun berezirik bako ibilaldiak dira, nahiz eta bi egunetan mila metroko desnibela egiteko aukera ere izango dugun. Baina kontua da norberak ikusi behar duela noraino iritsi. Ibilaldiaren bezperan ematen dugu hurrengo eguneko txangoaren inguruko informazio guztia, eta norberak erabakitzen du joango den ala ez.

**Bi plaza baino ez dira gelditzen aurtengo bidaiarako, ezta?**

Bai, 30 lagunentzako lekua daukagu, eta 28k eman dute izena dagoeneko. Baina interesa daukanari esango nioke, edozelan ere, etorri dadila galdetzera. Izan ere, bi hilabete falta dira oraindik, eta beti egoten dira azken orduko aukerak.

**Izena ematen duten gehienak Alpinoko bazkideak izaten dira?**

Bai. Kasu honetan, izena eman duten guztiak dira Alpinoko bazkideak. Izena emateko lehentasuna ematen diegu, eta deskontuak izaten dituzte; 200 euro gutxiago ordaintzen dute bidaia honetan.

**Bazkideen arteko hartu-emanerako aukera ederra izango dira bidaiok...**

Horrela da, bai. Hamabost egun horietan estutu egiten da gure arteko harremana. Beti esaten dut hauxe dela Alpino: jende eta leku pilo bat ezagutzeko aukera. Bitxia da, esaterako, zenbat bikote atera diren Alpino elkartearen sortutako harremanetatik. Alpinon elkar ezagutu duten lau bikote etorriko dira, esaterako, Balkanetara.

**Urtero desberdina izaten da egiten dituzuen bidaietako ibilaldien zailtasuna?**

Bai, eta jendea harritu ere egiten da batzuetan. Esaterako, iaz, Tenerifera joan ginen, eta jende gehienak hondartzagaz lotzen zuen leku hori. Batzuen harridurarako, ibilbide batzuk gogorak izan ziren; Bidaia hartan Teide igo zuten lagun batzuek, 0 metrotik 4.000 metroko altituderainoko igoera egin zuten.

**Zenbat urte dira Alpinok udako bidaiak antolatzen dituenak?**

Urte mordo da hasi ginela... Gogoratu ere ez dut egiten zer urtetan hasi ginen! [Barrez]. Hainbat lekutan ibili gara gazetarik: Tenerife, Mallorca, Aran ibarra, Eslovenia, Dolomitak, Maroko, Korsika, Alpeak eta beste hainbat leku eder ezagutu ditugu Alpinogaz.

**Asko aldatu dira gauzak bidaia hauek antolatzen hasi zinetenetik?**

Bai, gauza asko aldatu dira azken urteetan. Esaterako, lehen, gauak kanpin-dendan egiten genituen sarritan, mendian bertan. Orain, hoteletan eta aterpetxeetan egiten dugu lo. Kroaziako eta Montenegroko bidaia da horren adibide.

**Abuztukoaz gainera, ekaineko asteburuetan, hurbilagoko lekuetara ohiko irteerak antolatzen jarraitzen duzue.**

Bai, noski. Joan zen asteburuan, Aralarren egon ginen, esaterako, eta hurrengoetarako Ebroko GRa egitera eta Piriñotara joateko asmoa dugu.

**Urtean barrena, asteburuetako irteerak ere jende asko animatzen da?**

Aralarrera 30 lagun joan gara. Esango nuke azken urteetan beheraka egiten gabiltzala zentzu horretan. Sasoi batean, gertuko irteera horietara joateko, lau autobus betetzen genituen.

**Mendizaletasun handia dago, baina, oraindik ere, ezta?**

Bai, badago! Aldatu dena, beharbada, bestelako ohiturak dira. Autobusean joateak badauzka bere abantailak, baina antolatuta dago, eta ordutegi batzuk daude markatuta. Nik uste dut, gaur egun, jendeak asko baloratzen duela, esaterako, autoak ematen dizun askatasuna.

**Zenbat bazkide zarete gaur egun?**


2.216 lagun inguru gara. Zaharrak, umeak... Adin eta kondizio guztietako bazkideek osatzen dugu Alpino.



Risnjak mendia (1.524 m) igoko dute bidaiaren bigarren egunean.

## ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia  
Tel.: 946 202 004 Faxes: 946 200 998  
alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com



# << PLAZAREN



## ERROTA

Intxaurrondo Undagoitia Etxea, 54  
Tel.: 946 816 021

Taberna zabalik dago 07:00etatik 23:00ak arte.  
Besteak beste, gosariak, pintxoak, entsaladak,  
eta ogitartekoak eskaintzen ditugu.  
Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.



## NAPOZT

Josemiel Barandiaran, 8 behea - Durango  
Tel.: 946 004 086

Ez dugu udarako terrazez gozatzea baino plan  
hoberik ezagutzen! Hemen duzue Napozt bere  
pintxoekin, edariekin eta razioekin gozatzeko!  
Udan gainera, terraza 01:00ak arte zabalik!



## INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonaindia, z/g - Durango  
Tel.: 946 818 070

Gosariak 07:00etatik aurrera, astelehenetik barikura.  
Pintxoak. Terraza 10:00etatik aurrera.  
19:00etatik aurrera: besteak beste, entsaladak,  
ogitartekoak, izozkiak eta kafeak. Mahai zerbitzua  
eta giro euskalduna.



## PLATERUENA

Landako etorbidea, 4A - Durango  
Tel.: 946 030 300

Uda honetan, Plateruen Platerak  
bariku eta zapatu iluntzeetan.  
Razioak, entsaladak, etxeko  
pizzak eta postreak.  
Egunez, kafetegi giro atsegina  
eta eguneko menua.



# PLAZERA >>



## HOTEL OLAJAUREGI

Kurutziaga, 52 - Durango  
Tel.: 946 200 864

Hotel Olajauregik terraza ireki du! Eguraldi ona eginez gero, terraza zabalik egoten da asteburuetan. Ekainaren 18tik aurrera, osterara, egunero egongo da zabalik. Etor zaitez gurera, eta dastatu terrazarako prestatu dugun mokadu-karta!



## ZERO

Andra Maria, 6 - Durango  
Tel.: 946 812 222

Terraza paregabea Durangoko Alde Zaharraren bihotzean. Etor zaitez gure ogitartekoak eta razioak afaltzera eguenetik zapatuta! Astelehenetik barikura zain gaituzu, inguru bikainean!



## BODEGUILLA



Traña-Matiena  
Tel.: 946 814 385

Terrazan zein barrualdean, razio eta ogitarteko ezin hobeak aurki ditzakezu! Erdu Matiena auzora, ez zara damutuko!

## Uda honetan PLATERUEN PLATERAK

· Bariku eta zapatu iluntzeetan ·  
ekainetik aurrera  
20:00etatik 23:00etara





# AKADEMIAK

## Uda pasatzeko beste modu bat

**Quality English**  
ACADEMIA DE INGLÉS

**MATRIKULA-EPEA ZABALIK DATORREN IKASTURTERAKO**

**INGELES IKASTAROAK, UDAN**

- Ikastaro trinkoak ekainean, uztailan eta irailean.
- Maila eta adin guztiei zuzenduta.
- Mintzapraktika, gramatika, azterketa ofizialak, eskolan egindakoaren errepetasoa...
- Haurrentzako ekintzak ingelesez (modu atseginean ikasten dute, eta ingelesez jolas egiten dute aire zabalean).
- Udalekuak, ingelesez, etxetik gertu (7 urtetik aurrera).
- Ikastaroak eta egonaldiak atzerrian (Irlanda, Ingalaterra, AEBak...).

**ESKATU INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE**  
Vanessa Manzano - Txikerra kalea, 2 - 2E ZORNOTZA  
Tel.: 616 682 862 - vanessa.qualityenglish@gmail.com

Badatoz oporrak. Ikasle gehienak atseden sasoia heltzeko irrikitan daude. Hala ere, hilabete bi baino gehiago irauten duen oporraldia hainbat helburutarako baliatu daiteke. Aisialdirako denbora soberan dago, beraz, oporetako ordu batzuk ikastera edo hainbat arlotan hobetzerara bideratu daitezke. Goizean izaten dira ikastaro edo udaleku gehienak.

### Yes, you can

Ingelesa behar den bezala ikastea geroago eta garrantzitsuagoa da, bai ikasleentzat, bai lanean dabiltzanentzat ere. Urte bitartean tartetxo bat ateratzea ez da erraza izaten, beraz, udako ordu batzuk ingelesa ikastera bideratzea aukera ezin hobea izan daiteke. Umeen kasuan, eskola ludikoak izaten dira, jolasten duten bitartean ingelesa barneratu dezaten. Nagusiagoen kasuan, berriz, titulu ofizialak prestatzeko ikastaro trinkoak aukeratzaren dituzte.

### Alde artistikoa landu dezazun

Uda sasoia sormena lantzeko ere aprobetxatu daiteke. Arte Ederrekiko zaletasuna dutenen artean, teknika behar den bezala erabiltzen ikasteko ikastaroek arrakasta handia izaten dute. Zaletasuna izatea baino ez da behar, pintzelak edo akuarelak hartu eta margotzen hasteko. Era berean, musika gustuko duten gazte zein helduek zaletasun horri ekin diezaiokete.

Lotsak alde batera utzi, eta bakoitzak gustuko duen arlo artistiko horretan lehenengo urratsak ematea da helburua. Musika tresna gustuko hori aukeratu, eta probatzera ausartu zaitez. Baliteke barruan duzun artista hori uda honetan azaleratzea. Uda aurkikuntzaz beteta egon daiteke, baita sormen arloan ere. Erabakitzen duzuna erabakitzen duzula, gogoan izan oporrak disfrutatzeko direla. Ondo pasa!

**ONTRACK** Berritoxoa 18, Elorrio  
TEL: (+34) 94 658 46 73  
WEB: www.ontrackenglish.com

**2015-2016**  
Kurtsorako lizen ematea ZABALIK

**ONTRACK**  
ENGLISH SUMMER CAMP IN ELORRIO

**UZTAILAREN 1etik 17ra**  
Astelehenetik ostegunera  
10:00etatik 13:00etara  
8-14 urte bitartekoentzat

Helduendako klaseak, Arabiera, Irakasle natiboak, Berbalaguna, Ongi etorri zerbitzua, First Certificate, Gaztelania, Eskoletan, KET/PET, Enpresetako ingelesa, Itzulpenak, Umeak, CAE sakontza, Irakurketa saloak, Maila guztiak, Tarteko maila, Esperientziadun irakasleak, Hasiarako maila, Gramatika, Entzumena.

## SOINUA MUSIKA IKASTEGIA

### Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala  
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,  
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA



Kalebarrria, 1 - 1 Durango  
946 030 338 - soinua@euskalnet.net



**PYM'S IDIOMAS** **IKASTARO TRINKOAK**

Murgeta - Torre, 3A y 3E  
Teléfono: 94 681 56 77  
48200 DURANGO

[www.pymsidiomas.com](http://www.pymsidiomas.com)

Jatorrizko irakasleak  
Tel.: 946 815 677

**Cambridge English**  
Exam Preparation Centre

**CRIS ACADEMIA** **step 2014** **CAMBRIDGE ENGLISH**  
Language Assessment  
Authorised Centre

- Uztailean ikastaro trinkoak (goizez). Ordu-tegiak adosteko daude.
- Ikastaroak atzerrian, eta ingelesa ikasteko udalekuak Espainian Stepe-egaz.
- Zabalik 2015-16 ikasturterako matrikula epea.
- Emaitzarik onenak lortuko dituzu.
- Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzen lagunduko dizugu; Durangaldeko zentro ofiziala gara.
- Ingeles maila guztiak: KET, PET, FIRST eta ADVANCE.

**Matrikularik gabe**

Musiko Altuna, 11 behea  
48200 Durango  
Tel.: 605 368 929

**KURUTZIAGA ARTE EDERRETAKO AKADEMIA**  
Uztailean ikas ezazu margotzen!

**IKASTARO BEREZIAK!**  
Eskatu informazioa eragozpenik barik  
Tel.: 946 030 527 / 678 657 676  
[www.akurutziaga.com](http://www.akurutziaga.com)  
Kurutzia, 24 DURANGO

Helduentzako ikastaroak    Haurrentzako ikastaroak

**UDAL EUSKALTEGIA**

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
Matrikula epea zabalik

2015eko 2. DEIALDIKO AZTERKETAK PRESTATZEKO IKASTAROAK:  
EGA eta HABEKO 1., 2. eta 3. mailak.  
(Ekainaren 30etik uztailearen 9ra eta irailaren 1etik 29ra).  
Asistentzia beka eta diru-laguntzak langabetuentzat.

Saibi kalea 10, 3A • 48200 Durango • 946 030 040 • [www.durangoeuskaltegia.net](http://www.durangoeuskaltegia.net)

**Betsaide** LANGUAGE SCHOOL **CAMBRIDGE ENGLISH** Language Assessment  
Authorised Centre

**IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK**  
• ekainaren 1etik ekainaren 30era •

- Ludoteka ingelesez uztailean.
- Ingeles akademikoa eta ludikoa.
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- LH, DBH eta batxillergoko errefortzuak.
- Musika eta gitarra klaseak.

[www.betsaidelanguageschool.com](http://www.betsaidelanguageschool.com)

**4 eta... 100 urte bitartean badituzu eta musika ikasi eta gozatzeko gogorik baduzu, erdu musika eskolara**

**matrikula-epea zabalik ekainaren 1etik 25ra**

**Matrikulazio lekua:** musika eskolako idazkaritza  
**Ordutegia:** Astelehena 11:30-15:00 eta 16:00-19:00  
Martitzenetik barikura, 11:30-15:00

Bartolome Ertzilla Kontserbatorioa eta Musika Eskola **Escuela de Música y Conservatorio Bartolomé Ertzilla**

Montevideo, 7 - Tel.: 946 030 035 - [bertzilla@durango-udala.net](mailto:bertzilla@durango-udala.net)

**MATRIKULA ONLINE:**  
[www.durangomusika.net](http://www.durangomusika.net)

# “Hainbeste denboran espero izan dugun bidaia egiteko momentua da”

Bost lagun hauek batxilergoa amaitu, eta Europatik bidaiatzea erabaki dute Interrail txartela erabilita; trenera igo, eta kontinentetik zehar ibiliko dira hainbat astez, herrialde ugari ezagutzuz



Alba Oleaga, Nora Madariaga, Izaro Solozabal, Iratxe Agirre eta Iraide Gonzalez.

**> INTERRAILA** Miren Otxotorena / Maria Sarringarte  
**Zeintzuk izango dira bisitatuko dituzuen herrialdeak? Zergatik?**  
 Zaila izan da herrialdeak aukeratzeko; gugatik izango balitz, herrialde guztiak bisitatuko genituzke. Baina halakorik egitea ezinezkoa dela jakinda, gure artean eztabaidatu ostean, planifikazio hau geratu zaigu: Bilbo-Amsterdam-Berlin-Praga-Viena-Budapest-Ljubljana-Venezia-Florentzia-Erroma-Bartzelona-Bilbo. Hiri horiek aukeratu ditugu bertan gustatzen zaizkigun gauza interesgarri asko topatu ditzakegularako, eta baita gure familiakoek, lagunek, ezagunek... gomendatu dizkigutelako ere. Kroaziara joatea ere gustatuko litzaiguke, adibidez, baina ez da erraza, gure ibilbidetik urrun geratzen zaigulako. Orduan, hainbat

herrialde baztertu behar izan ditugu nahitaez, hurrengo batean egingo dugun bidaia baterako utzita, noski. Bestalde, argi dago ekonomikoki ere baldintzatuta gaudela. Hala ere, ibilbide polita antolatu dugu. Aspalditik izan dugu bidaia hau egiteko gogo. Gainera, oso gustuko dugu bidaiatzea. Gauza berriak ikastea, gure ingeles bikaina praktikan jartzeko, beste era bateko gastronomia dastatzea... Bostok uste dugu orain dela gure momentua, hainbeste espero izan dugun bidaia egiteko momentua.

**Nola bururatu zitzaizuen bidaia hau egitea?**

Udako gau epel batean gure etorkizunaz hitz egiten hasi ginen, zelako planak, ideiak... genituen, eta bostok gauza bat genuen komunean: munduko

lurralde askotara bidaiatzea. Orduan, hortik gutako biren ahizpen udako planari buruz hitz egin, eta horiek Interrail txartelagaz bidaiatu zutela aipatu genuen. Amsterdam, Praga, Polonia... bisitatu zituzten motxila bat gainean zutela, leku batetik bestera, gogotsu. Hor hasi zen bidaia hau egiteko nahia. Hasiera batean utopiatzat genuen, baina, urteak pasatu ahala, ohartu ginen bidai hau egiteko gogoak areagotzen zihoazela, eta orduan hainbeste desio genuen hura posible egiteko lehenengo pausoari ekin genion: dirua aurrezteari.

**Zelakoa izan da antolakuntza?**

Beno, antolakuntzari dagokionez, urrian gelditu ginen lehenengo aldiz seriotasunez. Gogoan dut lehenengo egunean oso urduri eta pozik geundela; ilusio garrasiak nagusi ziren

arratsalde hartan. Urduri eta gogotsu geunden udako planari buruz hitz egitean eta pentsatzean. Egun hartan, gustuko herrialdeak zeintzuk diren idatzi genituen orri zuri batean. Hemezortzi izan ziren. Argi genuen ezinezkoa zela guztietara joatea, baina lehenengo egunean ezinezkoa zen guretzat herrialderik baztertzeko. Helmugak idatzi ostean beste hamaika aldiz gelditu izan gara. Hurrengo gaia diru kontuak izan ziren. Geroago informazio bilketa egin genuen, zer bisitatu eta zer-nolako gauzak egin ditzakegun jakiteko. Berlinen, adibidez, bizikleta batzuk alokatzea pentsatuta dugu, Europa mailan, egunerokotasunean, bizikletan ibiltzea oso aurreratuta dagoela jakinarazi digutelako. Gainera, hiria beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera ematen digu horrek. Antzeko beste hainbat ekintza ere baditugu planeatuta.

**Ostaturen batean egin duzue erreserba bat?**

Aurrerago, bidaia hurbilago genuela ikustean, aterpetxeak eta ostatuak erreserbatzea izan zen gure hurrengo pausoa. Hori egitea konplikatu izango zela uste genuen, baina, egia esan, oso erraz egin ditugu erreserba, arazorik gabe. Aterpetxeak erreserbatu ditugu hainbat herrialdetan, merkeenak direlako. Gainera, ikasleok merkeago dugu horrelakoetan egonaldia. Bestalde, aterpetxeetan, munduko beste herrialde batzuetako gazteekin topo egiteko aukera izango dugu, logelak, adibidez, hemezortzikoak eta hamarrekokoak direlako. Bestetik, antolakuntzari dagokion kontuak ez dira zailak izan. Baliteke gure artean eztabaidaren bat edo beste eduki izana ostaturen bat aukeratzekoan eta bidaiaren

eguna erabakitzerakoan, baina, hala ere, hainbeste gogo dugu bidaia hau egiteko, non oztopoak arin gainditu ditugun.

**Zelan aukeratu dituzue aterpetxe horiek?**

Hiru ezaugarri hartu ditugu kontuan aterpetxe bat aukeratzeko orduan: lehenik eta behin merkea izatea; gero, kokaleku erosoan egotea, hau da, hiriaren erdigunean egotea; eta, azkenik, duen higieena edo garbitasuna. Ondorioz, aterpetxearen itxura, modernitatea, kalitatea... alde batera utzi behar izan ditugu, prezioa dela-eta. Garraioari dagokionez, gehienbat trenean egingo dugu

“*Aterpetxeetan, ostatuetan eta hoteletan egingo dugu lo*”

bidaia. Erosi dugun txartela hamar aldiz erabili dezakegu trenez mugitu ahal izateko. Guk bederatzi aldiz erabiliko dugu. Hegazkinean egingo dugu gure lehen bidaia, Amsterdamera; horrela, Paris ekidin dugu, eta ekonomikoago irten zaigu. Azkenik, Italiatik Bartzelonara ferryan joango gara, bidaia hori ere Interrail txartelean sartzen zaigulako.

**Askotan, Interrail txartela erabilia bidaiatzea ezinezkotzat jotzen da. Zein da zuen iritzia?**

Honelako bidaia bat egiteko hainbat zailtasun daude. Hasteko diruaren kontua dago, nahiko garestia delako. Gainera, antolakuntza serio eta zuzen bat behar da, eta horrek gogo eta erantzukizun handia eskatzen du. Bestalde, beldurra dago. Europara bost gaztek bidaiatzeak bere gorabeherak izan ditzake: herrialde horietan edozer gertatu ahal zaigu, eta, beharbada, bueltan etorri beharko gara. Hala ere, optimistak izan behar dugu, kezka eta larritasun guztiak alde batera utzi behar ditugu.

## Elizalde igerilekuak irekita

ORDUTEGIA: 11:00-20:30

PREZIOAK	
<b>ABONATUAK</b>	
Familia abonua*	100€
Familia ugarien abonua*	90€
Familiarra jubilatua*	90€
Guraso bakarreko familia*	90€
Banakako abonua	65€
Adinekoen abonua +65	60€
<b>EGUNEROKO SARRERA</b>	
Helduak	6€
Haurrak eta adinekoak	4€
Haurren 3 urte azpitik	2€
Haurren 6 hilabete arte	Doan
<b>INSKRIPZIOAK</b>	
Kiroldegian // 946 821 027	
elorrrio@bpxport.es	

**Elorriko udala**

**BPXport**  
Kiroi zerbitzuak  
www.bpxport.es

\* Seme-alabak 18 urte bitartekoak

## “Udalekuena aukera ona da umeak triatloian barneratzeko”

Hainbat urte darama Lide Azueta durangarrak triatloian, eta urteak dira Mugarra Triatloi Taldeak antolatzen dituen udalekuetan laguntzen hasi zela

### > TRIATLOIA M.O./M.S.

Zergatik hartu zenuen udaleku hauetan laguntzeko erabakia? Umeekin horrelako esperientzia bat bizitzeak animatu ninduen gehienbat. Asko gustatzen zaizkit bai kirol hau, bai haurrak. Monitore nagusiagoei laguntzeko aukera ere badut horrela. Gainera, lehenengoz parte hartu nuenean, trukean triatloirako behar den materiala lortuko nuela esan zidaten.

### Zein da udalekuen helburua?

Gure helburua da parte-hartzaile guztiek ondo pasatzea, uda sasoiari interesgarria eta ezberdina izan daitekeen zerbait egitea, ume hauek triatloia mundura hurbilazte eta, batez ere, kirola eginez disfrutatzea.

### Zelako giroa egon ohi da zuen udalekuetan?

Monitoreon artean, hau da, entrenatzaileen eta kirolarion artean, oso harreman ona dugu, aspalditik ezagutzen dugulako elkar. Umeekin ere harreman polita dugu, nahiz eta beti dagoen behar bezalako jarrera ez duen norbait.

### Horrelako momentuak monitorea izateko gogoak kentzera iritsi daitezke?

Ez, hori ez da gertatzen. Egia da batzuetan pazientzia amaitu daitekeela, baina taldean badaude horrelako egoeretan hobeto moldatzen diren monitorea. Gainera, geuk nahi dugulako joaten gara monitorea, beraz, horrek esan gura du animoz beteta

gaudela. Kontua da umeek oso ondo pasatzen dutela, eta hori da garrantzitsua.

### Parte-hartzaileek triatloi eskolan izena ematen dute gero? Umeak kirolaren munduan sartzeko modu egokia dela uste duzu?

Urte asko dira udaleku hauek lehenengoz antolatu zituztenetik, eta egia da udako ekintza hauetan izena ematen duten gero eta gehiagok erabakitzen dutela triatloi eskolan sartzea. Oso esperientzia ona eman digu udaleku honek, asko ikasi dugu umeekiko harremanez, eta, gainera, gustuko dugun kirola praktikatzeko aukera ematen digu, horregatik errepikatzen dugu urtero.



Lide Azueta, Mugarra Triatloi Taldeko kidea da.

## “Sentsazio ederra da beste batzuei lagundu diezaiekezula jakitea”

Sorospenetako ikastaroak amaitu ostean, batzuek bide horretatik jarraitzea erabakitzen dute; Itxaso Abaunza durangarrak gurutze gorrian laguntzen du



Itxaso Abaunzak erizaina izan gura du.

### > GURUTZE GORRIA M.O./M.S.

#### Zelako prestakuntza behar da honetan parte hartzeko?

Gurutze Gorrian parte hartu ahal izateko, lehenik eta behin, udan zein neguan proposatzen diren lehen sorospenetako ikastaroak egin behar dira. Ikastaro horiek behar bezala amaitzean, anbulantziatan ibili nahiz Gurutze Gorrian boluntario gisa parte hartu nahi baduzu, beste ikastaro bat egin behar duzu, anbulantzia batean zelan moldatu behar den ikasteko, horren inguruan gehiago jakiteko eta gertatzen dena gertatzen dela prest egoteko.

#### Zein izango da zure eginkizuna proiektu honen barruan?

Proiektu honen barruan nire eginkizun nagusia jendeari laguntzea, eta larrialdi baten aurrean edo laguntza behar denean nire esku dagoen guztia egitea da.

#### Zergatik egiten duzu? Ba al dauka zerikusirik zure etorki-

#### zunerako pentsatuta duzunagaz?

Egia esan, Gurutze Gorriarekiko interesa, batez ere, nire etorkizunari begira jarri nintzenean sortu zitzaidan. Erizaintza ikasi nahi dut, eta benetan mundu hori gustatzen zaidan ala ez jakiteko eman nuen izena ikastarotari; eta, egia esan, oso baliagarria izan da niretzat, orain argi dudalako gustuko dudan zerbait dela hau guztia. Horretaz gainera, oso garrantzitsua iruditzen zait lehen sorospenei buruzko zerbait jakitea, eta oso sentsazio ederra da beste pertsona batzuei lagundu diezaiekezula jakitea.

#### Mota honetako jarrerak ohikoagoak izan beharko lirateke?

Bai, ohikoagoak izan beharko lirateke. Lehen sorospenei buruzko zerbait jakitea oso garrantzitsua da edozein egoeraren aurrean eta edozein momentutan lagundu ahal izateko, eta, gainera, oso aberasgarria da norbaiti lagundu diozula sentitzea. Gainera, pertsona gisa hazten eta heltzen laguntzen dizu.

**Atxondoko igerilekuen irekiera!**

Ekainaren 21etik irailaren 13ra arte

11:00etatik 20:00ak arte

# “Harreman polita sortzen da hainbat urtetako jendearen artean”

Bertsozale diren gazte nahiko dago, eta horietako asko eskoletara ere joaten dira; uda sasoia gehiago ikasteko eta interes bereko jendea ezagutzeko aukera da, Iker Apraiz atxondarraren arabera



**> BERTSOLARITZA** M.O./ M.S.  
Bertsotan egiteaz gainera, zer beste gauza egiten duzue?

Bertso barnetegian, azken batean, gutxien egiten dena bertso eskolak ematea da. Bi edo hiru gau igarotzera joaten gara, eta Bizkaiko herri txiki batean –ni Aulestin eta Gorozikan egon

izan naiz, adibidez–, gazte asko elkartzen gara, eta, eskolez gain, beste hainbat gauza egiten ditugu. Goiz batean mendira joaten gara; gainera, Aulestin egonez gero, hondartzara ere bai, eta Gorozikan bagaude, errekarara. Bertso afari bat ere egiten dugu; ez da serioa izaten, umore-

tsua baizik, batak bestea zirikatuz. Bertsolari erdi prestigiotsu bategaz izaten da: Fredi Paia, Arkaitz Estiballes... [Barrez] Horretaz gainera, tailerrak ere egin ohi dira, gai-jartzaile tailerra eta epaimahai tailerra, besteak beste. Piropo-posta ere egiten dugu, eta gu, bertsolariok,

poeta batzuk garenez, oso piropo politikak irteten dira. [Barrez]

**Bertso eskoletako jendea bakarrik joaten da?**

Berez, bertsotan ez dakiena ere joan daiteke: gure laguna den Maialen Arteaga etortzen da! Normalean bertso eskoletako jendea etortzen den arren, inoiz bertsotan egin gabeko jendea ere etorri da. Gu, adibidez, lehengo aldiz etorri ginenean, inoiz bertso eskolan egon ga-beak ginen, eta Juanjo Respal-dizak esan zigun joateko. Juanjo Ikastolen Elkartearen bertso eskolen proiektua aurrera eramaten duena da, oso guapoa bera. [Barrez] Beraz, laburbilduta, ez, ez dago zertan bertsotan aurretiaz jakin, eta talde bat egiten da bertsotan ez dakitenekin eskolak ematerako orduan.

**Euskal Herri osoko jendea joaten da? Zein motatako harremana sortzen da zuen artean?**

Ez. Bertso barnetegira Bizkaiko jendea bakarrik joaten da, baina gero, bertso udaleku batzuk ere egiten dira, astebeteko egonaldiak, eta, horiek bai, horiek Euskal Herri osoko jendeagaz egiten dira, eta Euskal Herriko edozein lekutan egin daitezke, ez Bizkaian soilik. Bertso barnetegia, Bizkaian egiten dena, bizkaikoentzat da, baina suposatzen dut gainerako herrialdeetan ere antzekoak egiten direla. Giroari dagokionez, harreman polita sortzen da hainbat urtetako jendearen artean, eta normalean ezagutuko ez zenukeen jendea

ezagutzen duzu; Gernikatik datozenak, Bilbotik datozenak, Algortatik datorren jendea... Polita izaten da, harreman berriak sortzen direlako. Aberasgarria da inguru bateko eta besteko gazteekin egotea betiere. Suposatuko duzue euskal giroa egongo dela une oro, eta horretan saiatzen gara, baina, hala ere, beti dago taldetxoren bat hemen ere... Baina, beno, normalean denok egiten dugu euskaraz. Giro polita sortzen dela esango nuke nik, giro gaztea.

**Uda sasoiko kontua bakarrik da?**

Ez, urtean birritan antolatzen da. Neguan, egonaldi laburrago bat egiten dugu, asteburu batekoa. Eta udan, beste gau bat gehitzen da, eta, eguraldi kontuengatik, ekintza bereziak egiteko aprobetxatzen dugu. Gainera, lehen aipatu ditudan udalekuez gainera, negulekuak ere egiten dira, Gabonetan, beste astebeteko egonaldi bat. Beraz, uda sasoiaz gainera, urtean barrena ere elkartzen gara.

**Zer esango zenioke bertso munduarekiko interes eza edo ikuspegi okerra duenari?**

Bertso mundua ez dela bakarrik bertsotan egitea. Azkenen, bertso munduan beste gauza asko ere sartzen dira. Bertso saioak ikustea gustatu ahal zaitzu, baina bertsotan egitea ez... Era berean, kontuan hartzekoa da bertsolaritzaren inguruan sortzen den giroa. Batzuek uste dute bertsolaritza oso baserrikoa den zerbait dela, eta gaiak eta interesak ere oso baserrikoak direla: harriztar batzuk altxatzeagaz loturiko gaiak direla. [Barrez] Baina ez. Gai serioak lantzen dira; gero, gustatzen zaitzun ala ez, hori beste kontu bat da, baina behintzat entzun, eta entzundakoaren arabera eraiki ikuspuntua, ez lehenago.

**otxandioko igerilekuak**

ekainaren 15etik irailaren 15era arte

{ 11:00etatik 20:00etara }

# Hasi zen lekura bueltatuko da Ghetto taldea, gaur, agur esatera

Elorrioko Ateneoan eskainiko du Ghetto azken kontzertua, gaur, 22:00etan

## > MUSIKA Itsaso Esteban

Mikel Azkarate-Askasua saxofonistak taldea uzteak ekarri du erabakia. Azkarate-Askasua agurraren ostean, Elorrioko eta Atxondoko beste lau kideek ere Ghetto taldearen aroa amaitutzat ematea erabaki dute. Taldearen azken kontzertua izango da, beraz, Elorrioko gaurkoa. 2007. urtean lehenengo kontzertua eskaini zuten lekuan, Elorrioko Ateneoan joko dute *ghettotarrek*, gaur, 22:00etatik aurrera, doako sarrera edukiko duen emanaldian.

Zortzi urteotan, hiru baxu-jotzaile ibili dira Ghetto taldean. Aldaketak gertatu arren, 2007. urtetik gaur arte aurrera egin du taldeak. Hiru disko kaleratu ditu urte hauetan *-Erolution* izenagaz iaz kaleratu zuena da azkena-, hainbat kontzertu eskaini ditu han-hemen, eta hainbat ekimen berezitan parte hartu izan du. Durangoko Azokan, esaterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat prestaturiko zuzeneko emanaldi bat aurkeztu zuten.

Baina, Azkarate-Askasua saxofonistaren agurragaz, Ghettoaren aroa amaitutzat ematea erabaki dute taldekideek: "Saxofoiak nortasuna eman dio Ghetto, hasieratik izan da proiektuaren parte, eta erabaki dugu ez dugula hasi nahi beste saxofoi-jotzaile batez", azaldu du Unai Abaunza taldekideak.

Mikel Azkarate-Askasua saxofonistaren agurragaz, Ghettoaren aroa amaitutzat ematea erabaki dute

Inoizko emanaldirik luzeena eskainiko du Ghetto, gaur: "Gure ibilbidea errepasatu gura dugu emanaldian"

Azken hilabeteetan ohi baino gutxiago ibili dira zuzenean. Abadiñoko sanblasetan jo dute azken kontzertua, eta ordutik

hona gaurko despedida prestatzea izan dute helburu nagusi.

Inoizko emanaldirik luzeena eskainiko du Ghetto, gaur: "Gure ibilbidea errepasatu gura dugu: lehenengo kontzertuan jo genituen pare bat kanta, bertsoak, kolaborazioak, kanta instrumentalaren bat... Urteotan jarraitu gaituztenekin agur berezi bat partekatu gura dugu", azaldu du Abaunzak.

Gaurko kontzertua eta gero "beste fase bati" ekingo diote Ghetton elkarregaz ibili diren beste lau musikariek: "Ez dakigu zer izenagaz ibiliko garen, ezta aurrerantzean zer musika estilo jorratuko dugun ere, baina gogotsu gaude beste bide batzuetatik abiatzeko". Elkarregaz musika egiten jarraitzeko asmoa daukate Josu Abaunzak, Mikel Urrestik, Unai Abaunzak eta Iñaki Urrestik, nahiz eta aitortu duten, "momentuz, apur bat airean dagoela dena".

Duela zortzi urteko Ateneoko kontzertua bezala, grabatu egingo dute gaurkoa ere. Ghettoaren "zikloa ixteko" ideiaz.



# Durangaldeko III. Kopla Txapelketan, taldeka ariko dira bertsolariak

Ekainaren 19an, Durangoko Plateruenean egingo dute Durangaldeko III. Kopla Txapelketako saioa

## > BERTSOLARITZA

Aurreko bi urteetan bezala, bertsozaleen topaleku izateko helburuagaz, baina formatu be-

rriagaz, antolatu du Durangoko bertso eskolak Durangaldeko III. Kopla Txapelketa. Ekainaren 19an, Durangoko Platerue-

nean egingo dute saioa, ohi bezala, baina bakarka barik, taldeka lehiatuko dira, aurtan, bertsolariak. Aurrekoetan bezala, lehenengo, Plateruenean afaltzera elkartzeko, eta, afalostean, bertsolarien lanagaz gozatzeko proposamena egin dute.

Durangaldeko zortzi bertsolari parte hartuko dute, datorren barikuko kopla txapelketan. Bi taldetan banatuta lehiatuko dira: Areitistak eta Mardaristak taldeak osatu dituzte antolatzaileek. Unai Iturriaga, Miren Amuriza, Txaber Altube eta Garikoitz Sarriagarre egongo dira talde batean, eta Igor Elortza, Gorka Lazkano, Aitor Bizkarra eta Peru Magdalena bestean.

Enea Pinillos bertsozalea da txapelketaren antolakuntzan dabilenetako bat, eta, bere berbetan, "batez ere bertsolariak larregi ez kargatzea" izan da formatu aldaketaren arrazoia: "Datorren urtean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa izango dute Plateruenean parte hartuko dutenari askok, eta bertsolarienezako saio eroso eta lasaia antolatu gura izan dugu". Pini-losek adierazi du formatu honez arinagoa izango dela saioa,

eta giro polita sortuko duela taldeen arteko lehia horrek.

Durangaldeko gai-jartzaile taldeak prestaturiko gaien inguruan egin beharko dute koplatan txapelketa honetan parte hartzen duten bertsolariak.

## Bertsozaleak epaile

Durangaldeko sei bertsozale hautatzen dituzte txapelketako epaia emateko. "Pertsona horiek inguruko publikoaren iritzia zein den jasotzen dute epaia emateko". Bi sailkapen faseren ondoren aurrera egitea lortzen duten bi bertsolariak jokatu dute buruz burukoa, III. Kopla Txapelketaren irabazlea nor den erabakitzeko.

Kantatuko duten zortzi bertsolariak ez ezik, Josu Zabala musikari otxandiarra ere gonbidatu dute ekainaren 19ko Platerueneko emanaldira.

Ehundik gora lagun elkartu izan dira Plateruenean, aurreko bi edizioetan, eta, aurtan ere, eskualdeko bertsozale guztiak daude gonbidatuta afaritara zein osteko saioa entzutera joatera. Txapelketa antolatu zen lehenengo urtean, 2013. urtean, Beñat Ugartetxeakirabazi zuen, eta, iaz, Unai Iturriagak.

# Santander Photo lehiaketan saritu dute Segun Lazkanoren 'Ero'

## > ARGAZKIGINTZA

2013. urteko azaroan hil zen Segun Lazkano argazkilaria elorriarraren lana Santander Photo lehiaketara aurkeztu dute Txelu Angoitia eta Jesus Mari Arruabarrena bere lagun argazkilariek. Foto-proiektzio arloko sari nagusia eman diote Segun Lazkanoren *Ero* bildumari, Kantabriako hiriburuko lehiaketa horretan.

Txelu Angoitia eta Jesus Mari Arruabarrena argazkilaria lagunekin batera, 2012. urtean, *Noctis Labyrinthus* proiektuaren barruan, liburu batean argitaratu zuen Segun Lazkanok *Ero*. Ordutik hona, hainbat lekutan erakutsi izan dute bilduma hori.

Argazkilaritza ikasketak Londresen eta Zaragozan egin zituen Segun Lazkanok, zazpi urtez argazki-kazetaritza egin zuen lan, eta hiru argazki liburu argitaratu zituen.



Unai Iturriagak eraman zuen iaz txapelketako sari berezia: 'txapalata'.

**> AURKEZPENA** Itsaso Esteban Durangoko Kurutzesantu Museoan aurkeztu zuten, eguaztean, Gerediaga Elkartearen mende erdiko historiari buruzko *Hamabi harrien ahotsa* liburua. Hainbat elkartekidegaz izandako berbaldietatik eta Jon Irazabalek eskura ipinitako dokumentaziotik abiatuta idatzi du Raquel Calvo kazetariak.

Nerea Mujika Gerediaga Elkartearen presidentea azpimarratu zuen "50 urteotan elkar- teak bizi izan dituen aldaketak" jasotzen asmatu duela Calvok. Dokumentuetan jasotako historia ez ezik, elkar- tearen istorioak ere bildu ditu Raquel Calvok liburuaren 190 orrialdeetan.

*Hamabi harrien ahotsa* liburua idazteko lana ederra bezain gogorra izan dela kontatu zuen Raquel Calvo egileak. "Elkarrizketatu ditudan guztiek aberastu dute liburua; izan ere, ohartu naiz kide bezainbeste istorio daudela". Jon Irazabalek ere ideia horri heldu zion aurkezpeneko berbaldian: "Garai bakoi- tzean Gerediaga Elkarte bat bizi izan dugu, hainbat aldiz bere burua berrasmatu behar izan duena, gure eskualdeko mugit-



Jon Irazabalek, Raquel Calvok, Ana Maria de Castrok eta Nerea Mujikak hartu zuten aurkezpenean parte.

## 'Hamabi harrien ahotsa' bildu du Gerediagak liburu batean

Elkar- tearen 50. urteurrenerako idatzi du liburua Raquel Calvo kazetariak

mendu sozialei oso lotua egon dena... Saltsa guztietan ibili da Gerediaga Elkartearen parte hartu izan duen jendea: euskara eta ondarea babestu izan ditu, eskualdeko herrietako hirigintza

planak aztertu ditu, ingurumenari loturiko gaietan ibili da...".

Gaztelaniaz idatzi du liburua Raquel Calvok, eta euskararako itzulpenagaz, elebidun, kaleratu du Gerediaga Elkarteak. Dato-

ren astetik aurrera Durangoko liburu dendetan eskuragarri egongo da 15 euroan. Elkartearen bazkideek 10 euro ordainduko dute, eta elkar- tearen bulegoan erosi ahalko dute.

### GEURE DURANGALDEA

**JON ANDER URKIAGA EGIDAZU**

Kazetaria



#### Bitartean...

Ez dut irudikatzen bestelakorik. Ez dut desio itsaso hauskorrez inguraturiko uharte jainkotiarrik. Besterik gabe izan daiteke Ezkerraldeko fabrika hits eta fantasmagorikoek protagonismo erabatekoa hartzen duten paisaia antibukoliko bat. Edo Bardeako lurralde birritan okupatua, noiz tiro hotsa, noiz bihotz taupada norbere bizitzeko nahiaren arabera soilik kalibratu daitekeen lurralde komantxea.

Baina laborrian bizi naiz, zu horrenbeste ederrestek hain libre nola egiten nauen ezin ulerturik. Eta ez dut bestelakorik irudikatu nahi, ez bada amets gaizto batek aboratu, eta, aurrerantzean ere, esnatzean, egunero-egunero nire ondoan egotearen ordainetan. Zuk egiten nauzu ni, eta gainontzeko poema erromantiko guztiak San Joan bezperan kiskali ditzagun, urteko arritiririk sorginduenean.

Hel diezaiozun elkarri eskuetatik, Gabrielen manifestu duin batean bezala, Otamendiren laudorio arantzatsu batean bezala, ubedatarren ereserki aberrigabe batean bezala, Lertxundiren errieta historiko batean bezala.

Baina bakarrik geratzen banaiz zer? Nork esango dit aurrera egiteko? Nork bidegurutzean gelditu, eta erabakia soseguz hartzeko? Nork besarkatuko nau nahi dudanean, eta inolako arrazoirik eman gabe?

"Bitartean heldu eskutik, eskatzen dizut, ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi, maitasun keinu bat besterik ez".

## Eskolarteko txapelketa irabazi du Txaber Altubek

Zapatuan jantzi zuen Altube abadiñarrak txapela

#### > BERTSOLARITZA

Ekainaren 6an jokatu zen Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, Igorreko (Bizkaia) Kiñu gaztetxean. *Oinak buruan* lelopean, egun osoko jaia izan zuten, Bizkaiko Bertso Eskolen eguna ere ospatu zutelako.



TXABER ALTUBE

Lehenengo, idatzizko finala jokatu zuten, eta Durangaldeko hainbat bertsolari saritu zituzten: Bittor Altube eta Iruri

Altzerreka lehenengoak izan ziren DBHko bigarren eta hirugarren mailetakoko partaideen lehiaketan, eta Amaia Uzuriaga hirugarrena, lehenengo mailakoen artean.

Abadiñoko Txaber Altubek lortu zuen bat-bateko txapela. Buruz burukoan Lurdes Ondaro gernikarragaz egin zuen bertsoan, eta ekainaren 27an biek kantatuko dute Orion (Gipuzkoa), Euskal Herriko finalean.

Sari banaketaren ostean, elkarrekin bazkaldu zuten bertsolariak, eta bertso eskolen tartea izan zen gero. Zazpi bertso eskolotako kideek prestaturiko ikuskizunak eta erromeria izan zituzten aukeran.



Abadiñoko Marisorgin taldeak bi sari eskuratuta zuten.

## Haur Kantari Txapelketako hainbat sari, Durangaldera

#### > MUSIKA

Ekainaren 6an, Zallan (Bizkaia) jokatu zen Bizkaiko Haur Kantari Txapelketa, eta, epaileen ustez, Abadiñoko Marisorgin taldea izan zen onena. The Uskis taldearen *Horrelako* abestiagaz lortu zuten txapela. Taldekako sari horretaz gainera, bikoteka ere bigarren postua es-

kuratu zuten abadiñarrek, *Maritxu* kantagaz. Gainera, abesti horri aipamen berezi bat egin zioten txapelketako epaileek.

Maila bitan banatuta jokatzen da Bizkaiko Haur Kantari Txapelketa, 6 urtetik 11ra eta 11 urtetik 15era. Gazteenen mailan, Zaldibarko Ainhoa Azpitar- te izan zen garaile.

**Durangoko Kafe Antzokia** [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
 Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

<p><b>EGUNEKO MENUA</b> ASTELEHENETIK OSTIRALERA</p>	<p><b>Pub Quiz 5</b> Friday 12th June, 9.30 pm Plateruena-Antzoki in Durango</p> <p><b>EKAINAK 12</b> 21:15ean <b>DURANGO PUB'S QUIZ</b> LEHIAKETA</p>	<p><b>Live &amp; Beat</b></p> <p><b>EKAINAK 13</b> 00:30ean <b>LIVE &amp; BEAT</b> JAIALDIA</p>	<p><b>soinua</b></p> <p><b>EKAINAK 17</b> 19:00etan <b>SOINUA MUSIKA</b> ESKOLA JAIALDIA</p>	<p><b>ROCK IZAR RECORDS</b></p> <p><b>EKAINAK 18</b> 18:00etan <b>ROCK IZAR</b> ESKOLA JAIALDIA</p>	<p><b>DURANGALDEKO III. KOPLA TXAPELKETA</b> BERTSOLARITZA</p> <p><b>EKAINAK 19</b> 20:30ean <b>DURANGALDEKO III. KOPLA TXAPELKETA</b> BERTSOLARITZA</p>	<p><b>BART... SAX! SAX! BIG BAND &amp; BEAT SALAD</b> KONTZERTUA</p> <p><b>EKAINAK 26</b> 21:30ean <b>BART... SAX! SAX! BIG BAND &amp; BEAT SALAD</b> KONTZERTUA</p>
--	--	---	--	---	--	--



# Zapatuan, berriz ere Durangaldeko errepideetatik ibiliko da Emakumeen Bira

Iurretatik, Abadiñotik, Elorriotik eta Zornotzatik igaro ostean, Otxandiorantz joango da Bira



Iurretako atariko erlojupekoaren ostan, Askondo kalean egindako sari banaketaren irudia.

## > TXIRRINDULARITZA J.D.

Emakumeen Bira eguaztenean hasi zuten, Iurretako erlojupeko proba bereziagaz, eta bihar berriz itzuliko da eskualdeko errepideetara. Bira domekan amaituko da, Markina-Xemeingo etapa gogorragaz.

Biharko etapa Iurretako Maspe kalean hasiko da, 10:30ean. Abadiño-Elorrio-Berriz itzulia

egin dute Miñotatik, eta gero Zornotzarako bidea hartuko dute. Arratia eskualdetik ibili ostean, Zumeltza igo (bigarren maila), eta Otxandio ondotik igaroko dira. Handik Iturmendin kokatutako helmugara 60 kilometro geratuko zaizkie.

Aurten ere munduko txirrindulari onenak etorri dira Euskal Herrira, baina izar guztien

artetik bi falta dira: Marianne Vos gaur egungo izarrik handiena eta iazko Emakumeen Birako irabazle Pauline Ferrand-Prévot. Bat min hartuta dago, eta bestea ez da aurreko lesioetatik sendatu.

## Iurretako erlojupekoa

Emakumeen Bira atariko berezi batez hasi zen eguaztenean.

Iurretako desanexioaren 25. urteurrena dela-eta, udaletxe paretik abiatu zen 1,9 kilometro erlojupekoa lehiatu zuten. Ibilbide laburra izan zen, eta helmugan aldeak txikiak izan ziren. Annemiek Van Vleuten herbeheretarrek irabazi zuen: 2.29. Katrin Garfoot australiarra sailkatu zen bigarren, segundo batera, eta Ana Van der Bregen herbeheretarra hirugarren, segundo bira. Van der Bregen da Emakumeen Bira irabazteko faborito nagusienetakoa. Leire Olaberriak lehenengo euskaldunaren elastikoa jantzi zuen.

## Durangoko klasikoa

Martitzenean, Durango-Durangoko klasikoa lehiatu zuten, eta Emma Johansson suediarra izan zen irabazlea. Muniketako bigarren igoeran taldetxo bat eratu zuten, eta helmugarainoko bidea egin zuten. Azken metroetan suediarra izan zen azkarrena, eta sasoiaren dagoela erakutsi zuen.

## Oyarbide Euskadiko onena

Bizkaia-Durango taldeko Lourdes Oyarbidek Euskadiko erlojupeko txirrindulari onenaren

elastikoa estreinatu du Biran. Joan zen asteburuan irabazi zuen, Urduñan jokaturako proban. Irene Usabiaga eta Leire Olaberria sailkatu ziren bigarren eta hirugarren.

Ez da Oyarbidek aurten denboraldian irabazi duen txapelketa bakarra. Apirilean, Barrundian Euskadiko Errepideko Txirrindularitza Txapelketa irabazi zuen. Gaur egun Euskaldun Torneoeko eta Espainiako Kopako -23 urtez azpikoetan- liderra ere bada arabarra.

## BIRAKO ETAPAK

### • Ekainak 12

#### Ibilbidea:

- Maruri-Fruiz (82 km)

#### Mendateak:

- Libao (hirugarren maila)

### • Ekainak 13

#### Ibilbidea:

- Iurreta-Iturrimendi (122 km)

#### Mendateak:

- Zumeltza (bigarren maila)

- Altamira (hirugarren maila)

### • Ekainak 14

#### Ibilbidea:

- Markina-Markina (86 km)

#### Mendateak:

- Gontzegarraigane (hirugarren maila)

# Vulkanok 50. urteurrena ospatuko du bihar

Egun osoko jaialdia antolatu dute Otxandion

## > FUTBOLA

Vulkanok futbol taldea sortu zela 50 urte bete dira aurten, eta urteurren hori ospatzeko ekitaldi sorta antolatu dute. Bihar, umeentzako futbol txapelketa zein puzgarriak, erromeria eta argazki erakusketa antolatu dituzte herriko hainbat gunetan.

Gainera, familia argazki bat ere aterako dute. Horretarako, 13:00etan jarri dute hitzordua,

Zelaieta futbol zelaietan. Ondoren, 15:00etan, herri bazkarian batuko dira.

Gainera, uztaileko santamañetarako utzi dute ospakizunaren zati bat: hilaren 17rako Vulkanoko eta Athleticoko beterranoen partidua antolatu dute.

Aurten mailaz igotzea lortu du Otxandioko futbol taldeak: Lehenengo Erregionaletik Maila Gorenera igo da.



Aurten mailaz igotzea lortu du Vulkanok.

# Olanok eta Imazek irabazi dute Biharko Izarrak txapelketa

## > PILOTA

Mallabian jokaturako finalean Anartz Olaso aresoarrak eta Aner Imaz oiartzuarrak 22-16 menderatu zituzten Asier Arteaga eta Adur Lasa. Imazek partidu oso ona jokatu zuten, eta berari eman zioten finaleko pilotaririk onenaren saria.

Lau t'erdiko txapela Xabier Etxebarriak jantzi zuen, Ioritz Egigureni 22-19 irabazi ostean. Etxebarria fisikoki hobeto heldu zen azken txanpara.

## Durangoko finalak

Asteburuan, beste hainbat final jokatu zituzten Durangoko pilotalekuan. Peterren Oroienezko VI. Esku Pilota Jaialdiko finala Txaber Zabalak eta Aitor Elordik irabazi zuten. Eskolarteko finalean Paul Sagasta elorriarrak -kadeteak- eta Jon Zubikarai markinarrak -promesak- irabazi zuten.

# Río de Oro jaso du DRTren ekimen solidarioko materiala

Hona datozen ume saharauiei laguntzeko erabiliko dute



Errugbi eskolako gazteak eta Río de Oroko ordezkariak, jasotako materialagaz.

## > ERRUGBIA

Durango Rugby Taldeak ikuspegi solidarioa txertatu die aurten errugbi topaketei. Errugbia sustatzeko ez ezik, Río de Oro elkartearentzako materiala batzeko baliatu dituzte inguruko ikastxeetako 1.200 ikasleek Arripausuetara egindako bisitak. Río de Oro elkarteak

ezindutako ume saharauiak Durangaldera ekartzen dituzterako, udako egun batzuk hemen igaro ditzaten. Río de Oro elkarteak Durango Errugbi Eskolako gazteen eskutik jaso dute batutako material guztia: esaterako, jolasak, kotxerako aulkiak, eta arropa eta garbitasun pertsonalerako artikulak.

# Fede Mendizabal Tabirakoko ohorezko presidente izendatu dute

Tabirakoko sortzaileetako bat da, eta beti egon da Durangoko klubari lotuta



Fede Mendizabal erdian, ohorezko makilagaz, dantzariari begira. Tabirako

**> SASKIBALOIA** J. Derteano Tabirakok denboraldi amaieran egin ohi duen bazkariak hainbat une hunkigarri izan ditu aurtengoan. Horietako bat izan zen Fede Mendizabal ohorezko presidente izendatu zuten ueña: ohorezko makila eman, eta aureskua dantzatu zioten.

Mendizabal Tabirakoren sortzaileetako bat izan zen, eta baita lehenengo talde hartako partaidea ere. Harrezkero joan diren 55 urteetan klubari lotuta egon da. Gaur egun, klubeko diruzaina da.

1960ko lehenengo talde hartan taldekide izan zituen Jose Antonio Agirre, Antonio Corrales, Jesus Mari Merino eta Javier Urcelayk bertatik bertara jarraitu zuten ekitaldia; baita klubeko hainbat presidente ohik ere; esaterako, Ramon Vilak, Peru Perugorriak, Iñaki Sevilak, Oscar Presnok eta Hilario Perezek. Euskadiko federazioko ordezkari Arturo Aguado eta Bizkaiko federazioko presidente German Monje ere bertan izan ziren. Azken horiek oroigarri bat oparitu zioten.

**Agurrak eta ongietorriak** Klubetik irten berri den zuzendaritzaren azken bazkaria izan zen joan zen zapatukoa. Eguaztenean egin zuten batzar orokorretik aurrera Ina Mendibe buru duen zuzendaritzak hartu dio lekukoa.

Bazkariaren amaieran klubak intsignia bana erregalatu zien Marian Fernandez jokalaritari, klubean izan duen ibilbideagatik, eta Itsaso Gartzia presidente ohiari, urtetan Tabirakoren alde erakutsi duen konpromisoagatik.

## Docando gogotsu itzuli da Amorebieta futbol taldera

Urtebeterako kontratua sinatu du Amorebietagaz



Docando, Urritxe futbol zelaian egindako aurkezpenean. Maialen Zuazubizkar

**> FUTBOLA** M. Zuazubizkar Carlos Docando izango da Amorebieta futbol taldeko entrenatzailea datorren denboraldian. Jose Felix Gallastegi ordezkatu du. Docandok urtebeterako kontratua sinatu du Amorebietagaz. Aurretik ere klubean egon da: 2008-09ko denboraldian laguntzaile kargua izan zuen, eta futbolari ibilbideari ere Amorebietan eman zion amaiera, 2005ean: "Niretzat pauso garrantzitsua da talde honetara itzultzea, eta nire asmoa lana eta konpromisoa jartzea da", adierazi zuen aurkezpen ekitaldian. "Gogotsu" agertu zen, eta bere lehenengo asmoa taldea apurka-apurka osatzea da. Docandok adierazi du, lehenik eta behin, jokalariekin hitz egiten hasiko dela, taldea zehazten joateko.

## Sarrionandia eta Zearreta izan dira nagusi Euskadiko Txapelketan

**> BOLA-JOKOA**

Zornotzako Gure Kirolak botokiak Euskadiko Bola-joko Txapelketa hartu zuen zapatuan, eta Iker Zearretak, gizonetan, eta Josune Sarrionandiak, emakumeetan, jantzi zituzten txapelak.

Gisetza taldeko Zearreta zornotzarrak bigarren txapela du denbora gutxian; apiril amaieran Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen. Orduan puntu bakarraren aldeagaz jantzi zuen txapela, emozioz betetako final batean. Euskadikoan ere lehia estua mantendu behar izan zuen bere aurkariekin. Guztira, 170 puntu batu zituen, eta puntu biko alde atera zion Urko Izagirre bigarrenari. Beñat Gorospe sailkatu zen hirugarren tokian, 167 puntu batu ostean.

Emakumeetan Sarrionandia zornotzarrak goitik behera agindu zuen Euskadiko Txapelketan; 159 puntu batu zituen, eta 28ko alde atera zion Arabako Bea Isasi bigarren sailkatuari.

## Zornotzako rallya atxondar batek irabazi du

**> RALLYA** J.D.

Iñigo Olabegogea pilotu atxondarrak eta Iñaki Narbaiza kopilotu eibartarrak (Mendiola Racing) sorpresa eman, eta Zornotzako rallysprinta irabazi zuten, joan zen asteburuan. Euskadiko Rallysprint Txapelketa amaitzeko falta diren hiru probetan podiumerako borrokan ibili gura dute.

Iban Tarsicio abadiñarrak (Durangalde Racing) bigarren txandan gurrpil bat zulatu zuen, eta aukera barik geratu zen. Hala ere, sailkapen orokorreko bigarren postuan jarraitzen du.

## ADITUAREN TXOKOA



**Koikili Lertxundi**

Futbolaria eta enpresaria

### Nork irabazi du?

Aurreko artikulu batean aipatu nuen gaiaren ildotik, arrakasta soilik emaitzarekin lotzea arriskutsua izan daiteke; izan ere, bestelako balioei erreparatzen ez badiegu, hutsala eta oso efimeroa suertatzen da zorientasuna. Zentzu horretan, Athleticen eta Bartzelonaren arteko Kopako finalean gertatutakoak aipatzen dudana ondo islatzen laguntzen digula pentsatzen dut.

Batetik, denok tristetu gintuen emaitza; bestetik, euskaldunon ezaugarri aparta den harrotasunak ematen digun poztasuna. Tristura vs poztasuna, lehiakortasuna vs harrotasuna. Egia da, epe motzean, ertainean eta luzean, athleticzaleak zorientsuak izateko kontraesan hau haustu beharra dagoela, baina futbol profesionala mundu lehiakor eta krudela da, eta, hala ere, galdu duena bere taldeaz hain harro sentitzea duda barik garaipen handia dela ondorioztatuko nuke. Zergatik? Bizkaiko, Euskal Herriko eta mundu osoko athleticzaleak finalari esker oraindik zaleago bihurtu direlako, "Ez Barça, ez Madrid, Athletic!" gerra oihua oraindik indartsuago entzuten delako, belaualdi berriak eskolara berriz ere zuri-gorritz doazelako (komunikabidetan Madrid eta Bartzelonarekin bonbardatzen dituzten arren), Athleticen filosofiarekin ados ez dauden oportunistei bidea ixten zaielako, horrelako balentriei esker inoiz ahaztuko ez ditugun uneak ematen dizkigutelako oraindik ere gure lehoiek...

Jokalaria batek, bere barrenetik aipatzen zuen legez, "zuek zarete gure titulurik onena, gure koparik onena, gure ametsik onena".


Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

**Chimeneas**  
Cerámicas **MACOBER**  
**MACOBER**  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Zeramika eta gresa

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak  
**Betikoak**  
flexografía  
946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



# GREMIOEN GIDA



**DEKORAZIOA**



**GARBIKETA**



**LOREZAINNTZA**

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberriak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz.  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta abar  
Goietia, 10 - 2 esk. - ELORRIO  
Tel.: 946 820 991

*Jardines Patxi Lokategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk. PATXI  
48200 DURANGO 696 463 085



**ITURGINTZA**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak  
zure zerbitzura!**

## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550€tik aurrera.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berriztatuko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

#### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

#### ABADIÑO

- Bi bizitzako etxea eraikitzeko. 1.100 m2-ko lursaila salgai. Inguru egokia.

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### ABADIÑO

- Bi familiako etxea eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

#### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO. Gaztelua: Baserría. Sarrera arku ederra du. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeletxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- DURANGO: Familiabakarreko txaleta salgai lorategiarekin. Igerileku klimatizatua. Ikuspegi ederrak. Inguru pribilegiatua.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Inguru ikusgarria.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### SAN FAUSTO



- Bizitzen sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Berogailua. **88.000n.**

#### ARAMOTZ



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. **94.000n. Prezio negoziagarria.**

#### MARTXOAREN 8KO KALEA



- Erdi berria. BOE. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 40 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua. **98.500n.**

#### ERRETENTXU



- 73,43 m2. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Esekitekia. **130.000n. Prezio negoziagarria.**

#### ZALDIBAR



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Egoera onean. **137.000n. Prezio negoziagarria.**

#### ELORRIO



- Estreinatze. Igogailua. Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Trastelekua. **150.000n.**

www.inmoduranguesado.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ARAMOTZ: Halla, 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Lokal komertziala.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ZEHARKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

#### ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Despentsa. Balkoia.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

### AUKERA

- MIKELDI: 3 logela eta egongela. Eguzkitsua. Igogailua. 130.000n.
  - BERRIZ: BOE. Apartamentua terrazarekin. Trastelekua eta garajea. 96.000n.
  - F.J. ZUMARRAGA: 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 120.000n.
  - ARAMOTZ: Logela 2. 85.000n.
  - DURANGO: atikoa. 3 logela, egongela eta 30 m2-ko terraza. Igogailua. 145.000n.
  - ALDE ZAHARRA: 3 logela. Igogailua. 126.000n.
- ### ETXEBIZITZAK SALGAI
- MATIENA: 4 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Terraza 2. Ganbara eta garajea. 209.000n.
  - ANTISO ESTEGIZ: 3 logela eta sukalde handia. Berogailua. Igogailua. 175.000n.
  - ABADIÑO: Erdi berria. Logela 2, egongela eta komun 2. Terraza. Trastelekua eta garajea. 195.000n.
  - BERRIZ: Bernardo Gabiola: 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde esekitokiarekin. 180.000n.
  - TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde esekitokiarekin. Terraza. Trastelekua eta garaje itxia. 248.700n.
  - S. IGNAZIO: 3 logela, komun 2, egongela, sukalde eta esekitokia. Terraza. Trastelekua eta garajea. 239.500n.
  - ASK. ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara eta garajea. Etxe osoa kanpora begira dago. Eguzkitsua. 260.000n.
  - LEHENDAKARI AGIRRE: 3 logela, komun 2, sukalde eta esekitokia. Ganbara eta garajea. 259.000n.
  - MATIENA: 120 m2. 3 logela eta komun 2. 150.000n.
  - ABADIÑO: 90 m2. 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza. Ganbara. Garaje itxia. 199.000n. Prezio negoziagarria.
  - SASIKOA: 3 logela, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia aukeran. 206.000n.
  - SAN FRANTZISKO: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde esekitokiarekin. Terraza. 179.000n.
  - M.TORRE: 3 logela, komun 2 eta esekitokia. Terraza. Ganbara. Garajea.
  - MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara. 174.000n.
  - ZABALE: 4 logela, komun 2, egongela, sukalde eta esekitokia. Terraza. Garajea.
  - ARANDOÑOTORRE (musika eskola ondoan). 130 m2. 4 logela, komun 2, sukalde esekitokiarekin eta egongela. Garajea. Solariuma. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan.
  - MONTEVIDEO: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Igogailua. 150.000n.
  - PLATERUEN PLAZA: 4 logela, komun 2, egongela handia eta sukalde. Ganbara eta garaje itxia.
  - ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Igogailua. Berriztua.
  - KOMENTUKALEA: 4 logela eta komun 2. Terraza. Garajea aukeran. 186.000n.
  - FKO. IBARRA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea.
  - GARAI: Txaleta. Adosatua. 300 m2. Txoko-garajea.

### LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- DURANGO: 160 m2. Okindegia. Alokagai erosteko aukerarekin. 220.000n.
- IBAIZABAL: 51 m2. Egokitua. 590n.
- J.M. ALTUNA: 50 m2. Komertziala. 500n.
- PARKEAN: 60 m2. Frutategia. 600n.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600n.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.  
www.inmoetxetxo.com


**ANBOTO INMOBILIARIA ETXELAN**  
 NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO  
 946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com  
 www.inmobiliariaetxelan.com

**SALGAI****ELORRIO**

REF.499 . 70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, sukalde amerikarra. 155.000n.

TABERNA BI SALGAI. KONTSULTATU.

REF. 579. 200 m2-ko etxea eta 1.700 m2 inguruko lursaila. 390.600n.

REF.582. 76 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 93.300n.

REF. 472. 65 m2-ko PISU BERRIA, logela 2, bainugela 2, sukalde amerikarra. 132.000n.

REF. 547. 50 m2-ko apartamentua, logela 1 eta bainugela. 154.500n.

REF.474. Pisua. 95 m2. 3 logela. Bainugela 2. Garajea

Lokalak, dimentsioak: 250 m2, 170 m2, 140 m2, 121 m2, 101 m2, 62,5 m2 eta 105 m2.

REF. 473. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 161.000n.

REF. 407. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. Garaje itxia barne. 148.600n.

REF.550. 95 m2-ko pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 185.300n.

REF. 565.- 75 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 125.000n.

REF. 568.- 115 m2-ko pisua, 4 logela, 2 bainugela. 40 m2-ko trastelekua 155.000n.

Lursailak: Unifamiliarra eraikitzeko eta bifamiliarra eraikitzeko. 230.000n / 330.000n.

BI LOGELAKO ETXEBIZITZA. 60.000n.

70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. 40 m2-ko trastelekua. 84.000n.

**ATXONDO**

REF.495. Pisua. 95 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Garaje itxia (prezioan ez dago barne) 200.000n.

REF.469. Adosatua. 200 m2. 5 logela, 4 bainugela, egongela-sukaldea, terraza-lorategi. 2 garaje. Kontsultatu.

Ref.428. Baserria. 383 m2, 3 logela, bainugela, egongela-sukaldea. Lursaila. 385.000n.

Ref.427. Baserria. 900 m2, 9 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea. Lursaila. Kontsultatu.

Ref.333. Pisua. 75 m2, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea. 180.000n.

**ABADIÑO**

Txaleta, 4 gela, 2 bainugela, sukaldea, egongela. Berri-berri dago. 570.000n.

Ref.372. 83 m2-ko pisua, 3 gela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. 246.000n.

Ref.325. Pisua, 90 m2, 3 gela, bainugela 2, sukaldea eta egongela. 105.000n.

**BERRIZ**

Ref. 393. Pisua, 80 m2, logela 2, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia. 162.000n.

60 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela, egongela, sukaldea. 126.000n.

Ref. 401. Pisu ia berria. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. 204.000n.

Lursailak: 4 lursail salgai, eraikitzeko aukerarekin.

REF. 540.- TXALET BERRIA 1.200 m2-KO LURSAILEAN ERAIKIA. 600.000.

Ref.373. 68 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela, sukaldea. Aukera paregabea.

**ZALDIBAR**

Ref. 378. 90 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, sukaldea eta egongela. 158.000n.

Ref. 391. Pisua, 70 m2, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela. 125.000n.

Ref. 392. Pisua, 75 m2, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela. 150.000n.

REF. 570. Pisua, 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela eta garajea. 159.000n.

# anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu [www.anboto.iragarki-laburrak.com](http://www.anboto.iragarki-laburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio)edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org). Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Higiezinak****ETXEBIZITZAK****SALDU**

**Abadiño.** Pisu ederra , 124 m2, 2 logela (hasiera baten 3), sukaldea, egongela, 2 bainugela, trastelekua, ganbara eta garajea. Ikusgarria, bizitzera sartzeko prest. Tel.: 636-41 37 22.

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

**Elorrio.** Elorrioren, erdigunean kokatuta dagoen etxebizitza berria salgai. Bi logela, bi komun, sukaldea armairu tresnekin egokitua eta trastelekuarekin. Igogailuarekin. 147.000 euro. Garajea aukeran. Tel.: 634-45 72 01.

**Mallabia.** Aukerakoa, nekazaritza edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederra, 20.000 m2-ko lursailarekin. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu 655-70 26 47 telefonora (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera egon badago lursail gehiago eskuratzeko.

**Mallabia.** Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100 m2-ko azalera eraikita. Tel.: 695-77 31 41.

**ERRENTAN EMAN**

**Durango.** Durangon, atiko bat alokagai Merkatu plazaren inguruan. Igogailuarekin. Bikote batentzat aproposa. 450 euro hilean. Tel.: 695-74 22 38.

**Elorrio.** Elorrio erdigunean pisu bat alokatzen dugu: 3 logela, 2 balkoi handi eta eguzkitsua, altzariz horniturik, pisua berriztuta dago, eta trasteleku batekin alokatzen dugu. Prezioa: 450 euro. Tel.: 94 658 25 41 / 666-14 75 97.

**Elorrio.** Apartamentua alokagai herri erdian: logela bat, sukaldea-egongela, bainugela, trastelekua, berogailua-gasa. Eguzkitsua eta bizitzera sartzeko prest. Gaez deitu. Tel.: 94 682 04 38 (Edu).

**Elorrio.** Elorrioren, 50 m2-ko atiko berria alokagai. Logela, sukalde-egongela, komuna eta igogailua. Prest dago bizitzera sartzeko. Oso polita. Tel.: 631-12 31 06.

**ERRENTAN HARTU**

**Durango.** Durangon alokatzeko etxe bila nabil; neska langile eta arduratsua naiz. Logela bateko edo biko etxea nahiko nuke, eta gehienez 500 euroko alokairu-arekin. Tel: 666-10 05 90 (Whatsapp bidez egun osoan, eta telefonoz 18:00etatik aurrera).

**PISUA KONPARTITU****PISU BILA**

**Durango.** Pisukide bila zabilta? 27 urteko neska langile eta arduratsua naiz, Durangon gela baten bila edo etxea partekatzen lagun bila nabil. Gehienez 250 euro. Tel.: 666-10 05 90 (Whatsapp bidez egun osoan, eta telefonoz 18:00etatik aurrera).

**GARAJE / TRASTEROAK****SALDU**

**Durango.** Trastelekua salgai Astepe auzunean (Durango). 18 m2 eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Tel.: 665-70 75 35.

**Otxandio.** Otxandion garaje itxia salgai. Tel.: 675-71 72 83.

**GAINERAKOAK****ERRENTAN EMAN**

**Berriz.** Berrizko Eitua industrialdan lonja bat alokatzen edo saltzen dut. 82 m2. Bulegoa, aldagelak eta bainugelak ditu. Tel.: 94 681 42 54.

**Teknologia****GAINERAKOAK****SALDU**

**Gurpil-aulki elektrikoak saltzen dut.** Gurpil-aulki elektrikoak saltzen dut. Tel.: 94 682 04 40.

**EMAN**

**Bidali zure ordenagailua.** Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

**Lana - negozioak****LAN ESKARIAK****PERTSONAK ZAINDU**

**Durango.** Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska euskaldun arduratsua naiz. Tel.: 678-15 64 24.

**Durango.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. Sukaldaritzan ere jardun dezaket. Esperientziarekin. Orduka edo lanaldi osoan. Tel: 602-01 24 53.

**Durango.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketan. 08:00etatik 13:30era. Barneko langile gisa. Tel.: 631-73 01 44.

**Durango.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak zaintzen, eta taberna edo etxeak garbitzen. Lanaldi osoa edo orduka. Zazpi urteko esperientzia dut. Paperekin. Tel.: 631-28 71 29.

**Durango.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut Durangaldean, barneko zein eguneko langile gisa. Tel.: 692-83 80 30.

**Durango.** Esperientziadun neska lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, zein garbiketan. Tel.: 631-36 95 87.

**Durango.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, zein garbiketan lan egiteko prest nago. Esperientziarekin eta erreferentziarekin. Tel.: 646-56 93 90.

**IRAKASKUNTZA**

**Durango.** Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohi-turak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

**Durango.** Lehen Hezkuntzako gradua eta eskola partikularrak ematen esperientzia daukan neska euskalduna naiz, eta irailatik aurrera Lehen Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko prest nago. Interesa baduzu, deitu lasai. Tel.: 685-77 41 80.

**Durango.** Ekainean, azken azterketei begira, eskola partikularrak emateko prest dagoen ingeniari euskalduna naiz. Tel.: 678-48 87 66.

**GAINERAKOAK**

**Durango.** Neska gazte euskalduna lana bilatzen dabil udarako; ekainean arratsaldean, uztailan arratsaldean, eta abuztuan goizez nahiz arratsaldean. Edozein lan egiten dut: umeen zainketa, zerbitzari lanak, garbiketak, basoko lanak, iragarkien banaketa... Prezioa negoziagarria da. Tel.: 688-63 95 47.

**Durango.** Kontabilitatea, fiskalitatea... eramateko prest. Neska lizentziatua eta esperientziaduna. Tel.: 635-71 59 28.

**LAN ESKAINTZAK****GAINERAKOAK**

**Durango.** Durangon kokatuta dagoen lan bertikalen arloko enpresa batek langileak behar ditu lan-poltsa osatzeko. Bidali curriculum helbide elektronikoa honetara: [info@90gradu.com](mailto:info@90gradu.com).

**EMAN / HARTU**

**Ardi moztailak Durangaldean.** Ardi moztailak. Tresneria elektriko propioa. 35 urteko esperientzia, Zeelanda berriko metodoa. Tel.: 94 621 90 07 (Paul) / 667-91 88 71 (Joseba).

**Familia - etxea****ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK****SALDU**

**3 litera salgai.** 3 litera salgai daude. Ezin hobeto zainduta. Neurriak: 90 x 1,90. Horiekin batera baita bi balda ere. Armairu 1 eta 2 kajoi ditu. Tel: 660-25 27 93. [a\\_aldekoa\\_90@hotmail.com](mailto:a_aldekoa_90@hotmail.com).

**Lorategirako mahaia eta aulkia salgai.** Egoera ezin hobean dauden lorategiko egur oneko mahaia eta aulkia salgai. Uda sasoirako erosi nahi izanez gero, hemen daukazu aukera ezin hobea. Ez ditugu erabiltzen, eta saltzea pentsatu dugu. Prezio onean jarri ditugu salgai: 300 euro. Prezio negoziagarria. Tel.: 695-70 62 27.

**HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK****SALDU**

**City Mini bikientzako kapazua salgai.** City Mini bikientzako kapazua salgai. Arropak opari. Tel.: 635-00 62 63.

**Silver Cross karroa salgai.** Silver Cross karroa salgai. la erabili barik. 150 euro. Kapota eta zakua barne. Tel.: 679-37 90 37.

**Ume-kotxea eta osagarriak.** Honako hauek salgai ditut: Casual-play ume-kotxea (kapazua eta aulkia); kotxean erabiltzeko haurrentzako aulkia (0-18 kg); McClaren aulkia; lehen hilabeteetan erabiltzeko haur parkea. Prezio interesgarria. Tel.: 665-70 75 35.

**GAINERAKOAK****EMAN**

**Txakurra erregalatzan da.** Txakurra erregalatzan da. Hilabete eta erdi du, arraza nahasketa batetik jaioakoa da, eta ardi txakurren altura ingurura haziko da. Tel.: 608-64 39 66.

**Aisia - kirola****KIROLAK****SALDU**

**Bizikleta-eramatekoa saltzen dut.** Bizikleta autoan edo lur orotako ibilgailuan eramatekoa salgai. Atzeko atean jartzekoa. Hiru bizikleta eramane ditut. Tel.: 600-66 64 17.

# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 18an, 20:30ean, Zornotzako Andra Mari plazan

## La Fanfare en Petard

Zornotzako Haizetara jaialdiaren laugarren edizioa irabazi zuen Estrasburgoko (Frantzia) La Fanfare en Petard taldeak eskainiko du Haizetara 2015 jaialdiko lehenengo saioa. Ondorengo egunetan, Zornotzako txoko guztietara hedatuko da musika banden eta fanfarreen soinua: kalez kale ibiliko dira musika lehiaketako parte-hartzaileak.

## Musika

### :: ABADIÑO

EKAINAREN 13an

**19:00etan**, Urduñako Koral elkarte + Begoñako Garaizarko Matsorriak abesbatza, Urkilako santutegian.

### :: DURANGO

EKAINAREN 13an

**22:00etan**, La Basu + Ganorabakuek + Baghdad, Intxaurre tabernan.

EKAINAREN 17an

**17:00etan**, Soinua musika eskolako emanaldia, Plateruenean.

EKAINAREN 18an

**18:00etan**, Rock Izar musika eskolako emanaldia, Plateruenean.

### :: ELORRIO

EKAINAREN 12an

**22:00etan**, Ghetto, Arriolan.

### :: ZALDIBAR

EKAINAREN 12an

**23:00etan**, III. Gari Rock Fest: The Freetangas, gaztetxean.

EKAINAREN 13an

**17:00etan**, III. Gari Rock Fest: Mockers, gaztetxean.

**23:00etan**, III. Gari Rock Fest: Osso + Los Brazos, gaztetxean.

### :: ZORNOTZA

EKAINAREN 12an

**18:00etan**, Zubiatur musika eskolako piano eta kamara taldeen emanaldiak, Zornotza Aretoan.

### EKAINAREN 13an

**18:00etan**, Zubiatur musika eskolako konbo ikasleen pop-rock kontzertua, Zornotza Aretoan.

EKAINAREN 15ean

**18:00etan**, Zubiatur musika eskolako musika terapia ikasleen emanaldia, Zelaietako auditoriumean.

EKAINAREN 18an

**18:00etan**, Zubiatur musika eskolako 4 eta 7 urte arteko ikasleen emanaldia, Zelaietako pilotalekuan.

### :: ZORNOTZA (Haizetara jaialdia)

EKAINAREN 18an

**20:30etan**, La Fanfare en Petard, Andra Mari plazan.

EKAINAREN 19an

**19:00etan**, Zelaieta parkean.

**20:00etan**, Le Bus Rouge, Zelaieta parkean eta Luis Urrengoetxea kalean.

**20:30etan**, La Banda de la María, Andra Mari plazan eta Gernika plazan.

**20:30etan**, Magicaboola Brass Band, Arraibi plazan, Herriko plazan eta Zubiondo plazan.

**21:00etan**, No Water Please, Gudari kalean eta Ogenbarrenan.

**21:30etan**, Oompah Brass, Kalbario plazan.

**21:30etan**, Funky Stayle Brass, Arraibi plazan.

**22:30etan**, Le Bus Rouge, Nafarroa kalean eta Gernika plazan.

**23:00etan**, What Cheer? Brigade, Euskal Herria plazan eta Zelaieta parkean.

**24:00etan**, Perhaps Contraption, Zezilia Gallarzagoitian eta Zubiondo plazan.

## Jaiak

### :: BERRIZ (Legañoko jaiak)

EKAINAREN 12an

**22:00etan**, Kohatu + Etsipen + Bad Limit taldeen kontzertuak.

EKAINAREN 13an

**12:00etan**, Polekeleke elektro txaranga.

**14:00etan**, V. Korpion Bakailao Lehiaketa.

**18:00etan**, 'Funes band' kale antzezlan.

**20:00etan**, igel txapelketa.

**21:30etan**, DJ Robert.

EKAINAREN 14an

**11:30etan**, Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen emanaldia.

**Ondoren**, Kulturarteko topaketa: tailerrak, munduko janari dastaketa...

**16:00etan**, Sierra Leona talde kubatarraren emanaldia.

## Berbaldia

### :: DURANGO

EKAINAREN 17an

**16:30etan**, 'Gerediaga 1965-2015. Crónica cultural de medio siglo', Behargintzan.

### :: ZORNOTZA

EKAINAREN 16an

**19:00etan**, Asier Ipiñazarren berbaldia: 'Autodeterminazio eta erabakitze eskubidea', Zelaieta zentroan.

## Euskal Astea

### :: DURANGO

EKAINAREN 12an

**10:00etan**, umeen euskal joko tradizionalak, Landako kiroldogian.

EKAINAREN 13an

**11:30etan**, Gaztedi dantza taldearen maskaradako bost barrikaden kalejira.

**16:30etan**, Gaztedi dantza taldearen maskarada, Balbino Garitonandia plazan.

**18:00etan**, XIV. Zesta-punta Txapelketako finalak, Ezkurdi pilotalekuan.

EKAINAREN 14an

**12:00etan**, Txakolin Eguna, Kantu Lagun taldeagaz, Alde Zaharrean.

## Erakusketa

### :: DURANGO

EKAINAREN 14ra arte

Raquel Fernández Santosen 'Espazioa paper bezala', Arte eta Historia Musean.

EKAINAREN eta UZTAILEAN


Irati Eguren Arrutiren 'Herrian urperatzea', Arteka liburu dendan.

## Kontalaria

### :: DURANGO

EKAINAREN 13an

**11:30etan eta 12:15etan**, 'Story time under the sea', 3-5 urtekoentzat ipuin kontalaria ingelesez, Udal Liburutegian.



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### Jurassic World

- barikua 12: 19:30/22:00
- zapatua 13: 19:30/22:30
- domeka 14: 19:00/21:30
- astelehena 15: 18:30/21:00
- martitzena 16: 20:00

#### Superpoli en las Vegas

- zapatua 13: 17:00
- domeka 14: 17:00

#### 2. ARETOA

#### Requisitos para ser una persona normal

- barikua 12: 19:30/22:00
- zapatua 13: 19:30/22:30
- domeka 14: 19:00/21:00
- astelehena 15: 18:30/21:00
- martitzena 16: 20:00

#### Jurassic World

- zapatua 13: 17:00
- domeka 14: 16:30

### :: ELORRIO | ARRIOLA

#### A Esmorga

- zapatua 13: 22:30
- domeka 14: 20:00
- astelehena 15: 20:00

### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

#### Jurassic World

- barikua 12: 20:15
- zapatua 13: 19:30/22:30
- domeka 14: 17:00/20:00/22:30
- astelehena 15: 20:15

### Ekainaren 13an, 23:00etan, Zaldibarko gaztetxean

#### Los Brazos

Rock-and-roll klasikoa egiten duen Los Brazos talde getxoiztarra eta Osso bikotea entzuteko aukera izango da, bihar, Zaldibarko gaztetxean. Rockzaleentzako gustuko hitzordua izango da 2011n sortu zuten Los Brazos taldeak eta Osso bikotean bateriagaz, gitarraz eta euren ahotsekin elkartu diren Haritz Lete eta Sergi Ruiz musikariek eskainiko dutena. Gari Rock Fest musika jaialdiaren barruko emanaldia izango da, hain zuzen, jaialdi horren hirugarren edizioa itxiko duena.



**> BOTIKAK**

<b>BARIKUA, 12</b> 09:00-09:00 <b>Etxebarria</b> Montevideo etorb. 2 - Durango <b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>DOMEKA, 14</b> 09:00-09:00 <b>Navarro</b> Artekalea 6 - Durango <b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza <b>ASTELEHENA, 15</b> 09:00-09:00 <b>Unamunzaga</b> Muruelatorre 2C - Durango <b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza <b>MARTITZENA, 16</b> 09:00-09:00 <b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango <b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza <b>EGUAZTENA, 17</b> 09:00-09:00 <b>De Diego</b> Intxaurreondo 22 - Durango <b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza <b>EGUENA, 18</b> 09:00-09:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza <b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>ZAPATUA, 13</b> 09:00-09:00 <b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango <b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza 09:00-13:30 <b>Navarro</b> Artekalea 6 - Durango <b>Etxebarria</b> Montevideo etorb. 2 - Durango <b>Campillo</b> Montevideo etorb. 24 - Durango <b>Sagastizabal</b> Askatasun etorb. 19 - Durango <b>Unamunzaga</b> Muruetatorre 2C - Durango <b>De Diego</b> Intxaurreondo 22 - Durango <b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango <b>Larrañaga-Balentiaga</b> Berrio-Ofxoa 6 - Elorrio <b>Bartolome</b> Gabiola 2 - Berriz <b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza 09:00-14:00 <b>Irigoien</b> Bixente Kapanaga 3 - Iurreta 09:00-22:00 <b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	

**> ZORION AGURRAK**✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguaztenuko 14:00ak arteko epea

> Zorionak, **Xabier**, zure egunean. Jarraitu jator-jator. Mosu handi bat familiaren partez!



> Etxeko sorginak 4 urte bete ditu. Zorionak! Markoren, amaren eta aitaren partez musu handi bat!



> Zorionak, **Guillermo**! Ondo pasau zure eguna eta urte askotarako. Ekarrri pastelak! Zorionak Kamiñazpikoen eta Matienakoen partez!



> **Izar Ogizak** bihar 2 urte beteko ditu. Zorionak Irati eta Anerren partez. Aittitte Antoniori be mosu handi bat, gaur bere urtebetetzea da eta!



> Ekainaren 7an **Asierren**, **Arantzaren** eta **Manoloren** urteguna izan zen. Zorionak Matienako lagun partez!



> Zorionak, **Marisorginak**! Aurten ere Bizkaiko txapeldunak. Jarraitu holan, eta hurrengoan bardin. Zorionak!



> Zorionak, amama! 90 urte zoragarri bete dozuz. Mosu pilo bat etxeke partez, onena zara!



> **Esther Jauregui Larrazabalek** 100 urte bete ebazan ekainaren 8an. Ederto ospatu genuen, asteburuan familia osoa elkarturik! Zorionak eta besarkada handi bat!



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

Zorionak, **Amets Benito**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



# BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiak

Jakoba Errekondo

elmin elba harriai

Zure baratzeari buruz behar duzun informazio guztia



ANBOTOren irakurleen artean Jakoba Errekondoren 'Bizi baratzea' liburuaren 2. edizioko 4 ale banatuko ditugu.

Bidali zure datuak [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org) helbide elektronikora edo Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta helbidera.

# “Genero indarkeriaren aurka lan egiten duen zentro batera goaz”

Agirrek eta Derteanok Guatemalako Xela hirian pasatuko dute uda, kooperante lanetan

**> KOOPERAZIOA** J. Guenetxea Iratxe Agirre (lurreta, 1994) eta Iraia Derteano (Abadiño, 1989) Guatemala aldera bidaiatzeko prestaketetan dabiltza burubelarri. Medicus Mundi gobernu kanpoko erakundearen bidez, kooperante beharretan ibiliko dira, genero indarkeriaren aurka lan egiten duen zentro batean. Ekainaren 9a heltzeko irrikitan daude biak.

**Zelan sortu zaizue Guatemalara joateko aukera?**

**I.D.:** Hasieran, Gazteakera gazte atarian izena eman genuen. 600 laguneko artetik 200 inguru hautatu gintuzten. Ondoren, Barrian, topaketa batean parte hartu genuen, eta talde-lanean jarri gintuzten. Hitzaldiak ematera ere etorri ziren.

**Elkarrekin joan gura zenuten?**

**I.A.:** Aurretik elkar ezagutzen genuen arren, elkarrekin joatea kasualitate hutsa izan da. Ekimenaren barruan hainbat proiektu zeuden, eta egitasmo bera egokitu zaigu.

**Proiektu hau egokitu zitzaizue, zer pentsatu zenuten?**

**I.A.:** Emakumeen kontrako indarkeria lantzen duen zentro batera goaz, eta, ikasturte bukaerako proiektua ere ildo horretatik landu gura dudanez, oso pozik nago.

**I.D.:** Proiektuaren inguruan ez dugu datu gehiago. Dakiguna da medikuntza ikasten dabilen Tolosako neska bat ere gugaz etorriko dela. Uztailaren 9an joango gara, baina azalpen gehiago emango dizkigute lehenago.

**Zer zabilzate ikasten?**

**I.A.:** Ni Ekonomia ikasten nabil, eta garapenaren arloan egingo dut ikasketa amaierako lana. *Latinoamerikako emakumeen egoera sozioekonomikoa* izena du proiektuak, beraz, Guatemalako kasua aztertuko dut. Koadernoagaz joateko eta oharrak hartzeko esan didate. **I.D.:** Irakaskuntza eta Gizarte Integrazioa ikasi nituen, eta orain hezkuntza sexualaren inguruko ikastaro batean nabil.

**Kooperazio arloan baduzue esperientziarik?**

**I.A.:** Harritu egin gintuen Guatemalara joateko gu aukeratzeko, kooperazio arloan ez dugulako esperientziarik. Lehenengo harremana izango da, eta bete-betean sartuko gara.

**Zer sentsazio duzue?**

**I.D.:** Itzelezko gogoia dut joateko. Eguaztenez, proiektu bat aurkeztu behar dut, eta ezin naiz kontzertatu. Guatemalari buruzko liburu bat irakurtzen nabil, Interneten informazioa bilatzen, txertoak emateko zain nago... **I.A.:** Medicus Mundikoez esaten digute nortzuk ezagutuko ditugun han, eta gura duguna han egotea da. Desiratzen gaude bertara joateko.

**Guatemalan, nora joango zarete?**

**I.A.:** Guatemalako

hiri handienetako batera goaz, Xela hirira. Ez dugu arazorik, badakigulako GKEaren babes izango dugula. Hiriak baditu abantailak. Esate baterako, herrixketan, txarto ikusita dago emakumeek edatea, baina hiri batean ez da hori gertatzen.

**Emakumeek Guatemalan zelako egoera bizi dute?**

**I.D.:** Proiektuaren inguruan hitzaldi bat eman ziguten, Barrian. Guatemalako

neska batek kontatu zigun Gobernuan dagoena militarra izana dela. Talde militar horretako kideek neskek bortxatzen zituzten, beraz, pentsa zer egoeratan bizi diren. **I.D.:** Gure zentroan emakumeekin eta gizonekin lan egiten dute. Ugalketa sexualaren inguruko eskubideak lantzen dituzte, emakumeei laguntza juridikoa eskaintzen diete. Hor-taz, zentro honetan laguntza osoa ematen diete emakumei.



## LAUHORTZA

**MARISA BARRENA**



### Bizikleta

Bizikletak protagonismoa izan du egunokaz gure inguruan. Ikustekoa izan da astegienean bizikleta eskolek Durangon antolatutako ekitaldian parte duen ume kopurua. Aipagarria eta pozgarria Iurretan hasiera eman zaion Euskal Emakumeen Bira ere.

Elorrion, asteon eman duten Bizikletak vs Kotxeak dokumental interesgarriaren egilearen ustez, munduko hainbat lekutan kotxeak hiriak jaten dituen sasoi honetan, bizikleta izan daiteke soluzio bidea.

Gure erkidegoko etxeen %49an gutxienez bizikleta bat ei dago, eta populazioaren erdiak dauka kotxea. Beharginen %56k lantokia etxetik 5 km baino gutxiagora izan arren, askok kotxea erabiltzen du. Joan-etorri horietan bizikleta erabiliko balitz, ostera, atmosferara jaurtitzen den CO2 kopurua nabarmen gutxituko litzateke.

Halan zein holan, gure ohi-turak aldatzeko erraztasunak eta baliabideak beharrezkoak dira. Lehenengo eta behin, garraio publikoagaz konektatutako bidegorri egokiak beharko genituzke, baita bizikletak aparkatzeko leku aproposak ere. Gurean, tamalez, bidegorrietan barik, herritar arruntok inoiz inora eramango ez gaituen trenarentzat bide erraldoiak egiten xahutzen dugu dirua.

Eta zer esan Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak dabilen ideiaz? Antza denez, bizikleta erabiltzaileentzat aseguruia, gidabaimena eta antzekoak jartzeko asmoren bat dabil. Zalantza barik, horrelako neurriek bizikletaren erabilera moteldu egingo dute, kotxe saltzaileen mesedetan eta ingurumenaren kaltetan.

Esposizio  
aldaketagatik  
sukaldeak  
**%50**eko  
deskontuarekin



**ITURRIAGA  
SUKALDEAK**

Gremioen koordinaketa

Trafaldukoa, 2  
48220 | Abadiño  
Tel. | Faxa: 946 550 722  
Mobi.: 605 770 176  
E-maila: gorkaiturriaga@yahoo.es